

«Noiz arte sinetsiko dugu
eskubide indibidualen
erreinuan bizi garela?»

**LOREA
AGIRRE**



Mugikortasun politika

Denok garraio
publikoaren alde,
baina autoaren
mende

Luis Tosar aktorea

«Gure
produktorako
filmak ez dira
errentagarriak,
baina bai egin
beharrekoak»

Katalunia

Subiranismoak
badu nahiko indar
erreferenduma
aurrera
eramateko

Euskara

Sexologiako
hiztegi digitala
atera du
Nerea Sanchok

Ihesi

Tolosa
azokaz azoka

47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

argia



Liburu eta mahai jolasetan bertaratuentzat
prezio eta eskaintza bereziak

(Goienkale 113-115)

**HARPIDE
izan zaitez!**

Gazte* edo langabetua bazara,

ARGIA astekariaren

urteko harpidetza

%35eko
beherapenarekin

~~145€~~ → **94,25€**

Eskaintza epea: abenduaren 3tik 17ra bitarte

* 30 urtetik behera

Eska ezazu zure harpidetza: ☎ 943 37 15 45 · harpide@argia.com

NOBEDADEA

BIZI-BIRZI
mahai jolasa 8 urtetik gorakoentzat

jarri
kolorea
hondakinei

✱ Bideratu hondakin bakoitza
berrerabilpen egokia
izan dezakeen eremura.

Egin ezazu eskaera: ☎ 943 37 15 45
denda@argia.com · www.argia.com/denda



29€



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2012ko abenduaren 9a, 2.348. zenbakia

DEABRUAREN ABOKATUA

IÑIGO LAMARCA: «Arartekoak Gobernuaren kontra-boterea izan behar du». SUSTRAI COLINA / 4

ASTEKO GAIA

GARRAIO PUBLIKOA Benetako neurrien beharra autoaren esklabo ez izateko. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 5

PERTSONAIA

LOREA AGIRRE: «Oro har, gure kulturaz japoniarrek duten irudia daukagu». SUSTRAI COLINA / 10

IRITZIAREN LEIHOA

NAHIERAKO JUSTIZIA INTERNAZIONALEA

ASIER BLAS MENDOZA / 16

EZBERDINA BEA SALABERRY / 18

BAKEA HELBURU BIDE-LANEAN PEIO DUFAU / 19

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

TXANDAN Ipurtargia. IXIAR ROZAS / 18

BERTSO BERRIAK *Made in Galiza*. XABI PAYA / 19

ZIRTA Euscool manifestua. BEÑAT SARASOLA / 20

ERDIKO KAIERA

KAFE ANTZOKIAK ETA KULTURGUNEAK

Euskal kulturaren oasiak. MYRIAM GARZIA / 21

LUIS TOSAR, AKTOREA: «Egon behar den lekuetan egoen saiatzen naiz, hori da militantzia». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 25

IHESI TOLOSA Larunbateroko azokan usaintzen da bailararen esentzia. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 28

LITERATURA IGOR ESTANKONA, XABIER LETONA / 32

MUSIKA OLATZ KORTA / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Ur handitan. OIER GUILLAN / 35

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

KATALUNIAREN INDEPENDENTZIA Erreferendumak akordio sendoa derrigor. ÀLEX MILIAN/EL TEMPS / 39

EUSKADIKO KUTXA-IPAR KUTXA Banku eredu kooperatiboa indartzen. DANIEL UDALAITZ / 42

HIZTEGIGINTZA Sexologiak badu euskarazko hiztegia. IURE EIZAGIRRE / 44

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IURETA AZKUNE / 47

NET HURBIL Caldicott: «Gizakiaren historiako istripurik larriena, Fukushima». PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

IÑIGO LAMARCA

Handitzean, nork izan nahi du Ararteko?

| SUSTRAI COLINA |

Argazkia: Dani Blanco

«Arartekoak Gobernuaren kontra-boterea izan behar du»

Hemen EAEko biztanleen pena guztiak entzuten dituen!

Ez da nekagarria, motibagarria baizik. Motibazio mugikorraren bateria kargatzailea bezalakoa da: energia guztia xahututa bukatzen duzu eguna, baina biharamunerako erabat kargatuta zatoz.

Motibazio handia beharko duzu egun batean Ertzaintzak zure gomendioei kasu egiteko.

Arartekoak gobernuaren kontra-boterea izan behar du zentzurik demokratikoenean.

Arartekoa kontra-botere inpartzial eta independentea bada, zu hezur-haragizkoa zara?

Gurea giza-eskubideen printzipioak oso barneratuta dituzten 50 pertsonatik gorako orkestra da, eta ni orkestra zuzendaria baino ez. Alegia, nik independentzia eta inpartzialtasuna zor ditudala, instrumentu bakoitza jotzen duenak zor dituen bezalaxe.

Zure biografiek zure homosexualtasuna zor digutela dirudi. Noiz irakurri dugu "Iñigo Urkullu, heterosexuala"?

Lege eta gizarte mailan asko egin da aurrera, baina oraindik ere homosexualitatea guztiz normala ez den sakoneko ideia dago. Tira, Obama beti izango da lehendakari beltza, goi-kargu bat hartzen duen emakumeari beti azpimarratuko zaio generoa...

Baina euskal herritarrak ez al ginen aurrerako, tolerante eta guayak? Ala hori egoera ekonomiko erosoetan bakarrik zen?

Thomas Hobbesek garbi esan zuen: "Primum



vivere deinde philosophari». Baina zeintzuk dira bizitzeko beharrianak? Ez al ditugu gauza gehiegi sartu oinarritzko beharrianetan? Gauzak ondo zihoazenean ere, ez al diogu garrantzi handiegi eman diruari?

Tira, gizalegea beharrian denean legea gurtzen itsutu gara.

Batzuetan gizalegeak ez al du bazterkeria sortzen? Beraz, bat, Legebiltzarretik ateratzen diren legeek dute lehentasuna. Bi, lege horiek guztien eskubideak errespetatu behar dituzte. Hiru, legeak gizartearen gizalegearekiko zilegitasuna behar du. Eta lau, gizalegeak ere eboluzioa zor du.

Aieteko Adierazpena dirudi honek! Bakeaz, konponbidez, edo dena delakoaz iritzirik?

Giza-eskubide funtsezkoenak testuinguru demokratikoa behar dute. Horretarako, indarkeria mota guztiak ondorio guztiekin onartu, asumitu eta oso gogoan izan behar ditugu. Kontua ez baita gertatutakoa itsuitsuan gainditzea, gertatutakoaren jabe izanik gainditzea baizik.

Ararteko postua ez dela betiko esango zizuten, ezta?

Mandatua bukatzean Gipuzkoako Batzar Nagusietako nire legelari plazara itzuliko naiz. Zehazki zertan ez jakin arren, gizarte-ekintzan segituko dudala dudarik ez izan, eta azken urteetan izan ez ditudan denbora, arnasa eta templea berreskuratzean idazteko asmoa daukat. ■



Benetako neurrien beharra autoaren esklabo ez izateko

Teoria badakigu: garraio publiko eta kolektiboa hobetsi beharko genuke, ibilgailu pribatuaren aldean. Baina oraindik ere autoa da nagusi, administrazioaren politikak sustatuta, hirien diseinuak bultzatuta, eta sarri, guk geuk aukeratuta. Benetako neurri eraginkorrak hartzea ezinbesteko bihurtu da, mugikortasun jasangarria lortzeko bidean.

Testua eta argazkiak:

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

INGURUMENAREN TZAT eta gure osasunarentzat kaltegarria den kutsadura, baita akustikoa ere, pilaketak, ibilgailu saturazioa eta istripu arriskuak, baliabide naturalen gehiegizko kontsumoa (lurra eta energia batez ere)... Ugariak dira ibilgailu pribatuen oinarritutako egungo garraio ereduak eragiten dituen arazoak, eta horiek arintzeko modua da garraio publikoa, aipaturiko kutsadura, pilaketa eta kontsumoa txikitzeaz gain, aparkatzeko buruhausterik ez duelako sortzen, seguruagoa delako, irakurtzeko edo bestelako ekintzetarako aukera ematen duelako, edota lur eremu txikiagoa hartzen duelako —autoak baino sei aldiz gutxiago okupatzen du autobusak, eta hamabost aldiz gutxiago trenak—; lur hori berdegune eta oinezkoentzako bideetarako erabili daiteke gero.

Aldiz, autoaren mesedetan jokatu da orain arte. Automobil industriaren nagusitasunaren

seinale da, esaterako, krisi garaian Nafarroako Gobernuak lehenik, Espainiakoak segidan, diru-laguntzak ematea ibilgailua erosteko eta autobus eta tren zerbitzuen salneurriak urtetik urtera igotzen uztea. Errepide kilometro kopurua ere, Europar Batasuneko batez bestekoa-ren bikoitz inguru da Euskal Herrian, nahiz eta Supersur edota Eibar-Gasteiz gisako azken proiektuek agerian utzi duten aurreikusi baino askoz gutxiago erabiltzen direla. “Diru asko gastatu dute horretan, baita ez geneukana ere (Europar Inbertsio Bankuari eskatutako maileguak finantzatu du zati handi bat), horrez gain Euskal Y-an dena gastatu dute eta ordainetan jendearen beharrei erantzuten dion garraio publikoaren kalitatea jaitsi egin da: zerbitzuak gutxitu dira, Bilbo-Donostia trenbidea ez da berritu...”, dio David Hoyos mugikortasunean adituak. AHTan “milioika euro jarri ordez”,

Sarri, prestigio kontua da autoan bidaiatzea, eta emakumeek eta maila ekonomiko baxukoek erabiltzen dute batik bat garraio publikoa. Baina “pentsatzen jarri gero, autoa ez da hain erosoa, ezta hain aukera ona ere”, dio David Hoyosek.



GARRAIO PUBLIKOA

Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorrak autobusen sarea garatzeari lehentasuna eman beharko liokeela uste du baita ere Bizil elkarte-ko Iban Grossier-ek: “Iparraldean, biziki gutxi erabiltzen dute hirien arteko autobus sarea, maiztasuna ahulegia delako, sobera autobus gutxi dagoelako zirkulazioan eta sarea ez delako ezagutzera eman”.

Hoyosek hiru arazo nagusi ikusten ditu Euskal Herriko garraio publikoaren kudeaketan.

Batetik, eskumen banaketak garraioa ikuspegi zabal eta bateratutik kudeatzea galarazten du. EAEn esaterako, diputazioek errepideak gestionatzen dituzte, Eusko Jaurlaritzarena da Eusko Tren eta Y, autobusak diputazioenak edo udalenak izan daitezke, eta Estatuaren esku daude aireportuak, portuak eta Renferen aldiriko trenak. Adibide bat:

Ezkerraldean metroa jartzen hasi ziren, aurretik zegoen aldiriko tren zerbitzua kontuan hartu gabe; “modu horretan, trenari lehia egiteko eraiki da metroa, trenari erabiltzaileak kentzeko, eta publikoki ez dauka inongo zentzurik”, diosku. Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean, Akitania Eskualdea arduratzen da trenez, Pirinio Atlantikoko Departamendua hiriarteko autobusez eta Aturri Euskal Kostako Hiriguneko Garraioen Sindikatua Baionako sareaz. Grossier-ek kritikatu du ez dagoela ez txartel bateraturik ez garraio publikoa modu bateratuan erabiltzeko aukerarik.

Bestalde, erakundeek gastuak eta defizita kalkulatzeko dutenean, ez dute aintzat hartzen gizarte kostu osoa, garraibidearen errentagarritasun soziala. Beste adibide bat jarri digu David Hoyosek: “Duela urte batzuk, ikasleak kexatu ziren EHUrako joateko autobus gutxi zegoelako, eta aldundiak erantzun zuen oso garestia zela autobus gehiago jartzea, baina kostu soziala kontuan hartuz, oso merkea da, 5.000 ikasle egunero autoz joatea arazo askoz handiagoa baita: pilaketak, kutsadura...”.

Hirugarrenik, azpiegituren planifikazioa egi-terakoan erabakia politikoki hartzen da sarri, izango duen erabilera edo errentagarritasuna aztertu gabe. “Ikuspegi estrategikoaren aitzakian erabakiak hartzea arriskutsua da, eta Abiadura Handiko Trena da adibide on bat, José María Aznarrek deliberatu zuelako Estatu-ko hiriburu guztiek konektatuta egon behar zutela AHTaren bidez, nahiz eta mundu osoan ez dagoen parekorik”, azaldu du Hoyosek.

Eskumen banaketak garraioa ikuspegi bateratutik kudeatzea galarazten du. Adibide bat: Ezkerraldean metroa jartzen hasi ziren, aurretik zegoen aldiriko trenak kontuan hartu gabe

“Hirian autoarekin sartzeagatik kobratzearen aurkakoek diote langile-klaseari min egingo liokeela ordaintzeak, baina hirira autoan datozenak maila altukoak dira batez ere”

David Hoyos

Diskurtso orokorra...

Adituaren hitzetan, garraio publikoa sustatzeko lehenik eta behin beharrezkoa da diskurtso orokorra finkatzea, eta mugikortasun jasangarriak agintzen duen diskurtsoak hiru zutabe ditu: garraio sistema orekatzea jasangarriago diren garraibideen mesedetan, joan-etorrien ekoeraginkortasuna hobetzea, eta mugikortasun beharra txikitzea. Alegia, hurbiltasunaren kontzeptua gailentzea politi-

ka eta plangintza publikoetan (osasun, hezkuntza, lan eta aisialdi guneak herrietatik urrundu gabe, adibidez), garraioa ahalik eta gutxien erabili behar izateko. Ikuspegi publikotik, denentzako moduko garraibide unibertsalak sustatzea litzateke koherentee-na, haurrek, zaharrek, gidabaimenik ez dutenek edo maila

ekonomiko baxua dutenek erabili ezin duten garraibidea, autoa, bultzatu ordez.

Mohring Efektuaren arabera, gorpil-zorua da garraio politika: autoa hartzeko oztopoak jarritz gero, jende gehiago hasiko da tren erabiltzen, horrek trenaren maiztasuna eta zerbitzua hobetzea ekarriko du eta ondorioz geroz eta lagun gehiagok hartuko dute, prezioak merkatu egingo dira... Eta alderantziz: tren zerbitzuak maiztasun gutxi baldin badu, errepideak hobetzen badituzu eta doakoak baldin badira, autoa gehiago erabiliko dugu. Neurriak hartzeko gakoa politikariak beraiek garraio publikoan benetan sineste dela azpimarratu du Hoyosek. 2012-2020rako Mugikortasun Jasangarriaren Plana prestatu berri du Eusko

Jaurlaritzak, eta besteak beste publikoak diren garraibideak koordinatzea du helburu, tarifak integratzea edota ibilgailu pribatuaren erabilera %15 jaistea, “baina sarri, teoriarik onak diren planak errealitatean ez dira ikusten. Politikariak herritarrei esaten die garraio publikoa erabiltzeko eta bera autoan doa, zein sinesgarritasun izango du?”.

... Eta neurri zehatzak

Askotariko erabakiak har daitezke, garraio publikoaren zerbitzua eta erabilera indartze aldera. Hala nola, autobusaren kasuan errei eskusiboak areagotu (hiri barnean, baina baita hiri sarreretan ere); hiriak lineaz bete beharrean sare simple eta eraginkorragoak planifikatu (finkoak erdialdean, autobus lagun-ariak kanpoaldera iristeko); edota hiri kanpoaldean aparkalekuak jarri eta erdialdera iristeko doako garraibideak ipini (Baionako

Metroan irakurtzen

DENERAKO erabiltzen du metroa Eider Fernandezek, “ia-ia bertan bizi naiz”. Berangotik Abando eta Boluetara lanera joateko astegunetan, eta lagunekin elkartzeko asteburuetan. Lanera 40-45 minutuko bidaia du metroan eta irakurtzen joaten da beti. 27 urte betetzear, iaz agortu zitzaion Gazte Txartelaren aukera: “Orain arte hori erabili dut eta ongi dago, guneen arabera 210-250 euro inguruko txartela baita urte osorako, baina 26 urtetik aurrera hileroko txartela erosi beharra dago eta 45 euro inguru kostatzen zait hileroko. 450 euro baino gehiago dira urtean eta beraz merkeegia ez da, baina Madril edo Londres bezalako hiri handietan askoz garestiagoa da metroa”.

Zenbait gune eta geltokitan maiztasuna hobetuko luke Fernandezek, Bidezabal geltokitik hasi eta Plentziara bitarte apur bat bazterturik daudela baitio: Plentzian hiru metro dituzte, 20 minutuko maiztasunarekin, “eta hori metroa baino gehiago, trena da”. Hala ere, argi dauka berak: “Lanera autoz joateko aukera daukat, garajea ere badut, baina ez du merezi, goizetan sortzen diren auto-pilaketekin loteria hutsa delako, eta metroak ziurtatzen dit garaiz iritsiko naizela. Gainera, metroan denbora aprobeitza dezakezu, irakurtzeko adibidez”.



Trenean seguruago

ANDONI INZAK 32 urte dauzka eta Arrasaten egiten du lan. Egutero trena hartzen du Iruñen eta Zumarragaraino joaten da, han aparkatua uzten duen autoan egiten du gainerako bidaia. Joan-etorrian, bi ordu eta erdi igarotzen ditu trenean. Autobusarekin egin zuen proba, baina denbora eta ekonomia aldetik aukera hobea da trena, eta autoan joatea baino merkeagoa ere bada: 80 bat euro balio du hileko bonoak.


Trenaren maiztasun eta ordutegiarekin gustura dago Inza. “Egia da nekoso dela hainbeste denbora pasatzea trenean, baina autoan okerragoa da eta trenean irakurtzeko edo ikasten joateko aukera daukat, frantsesa ikasten ari naizelako. Autoan, gainera, handiagoa da arriskua eta trenean joanda deskantsatuago iristen naiz lanera, lo kuluxka ere bota dezake delako, behar izanez gero. Lasaia bidaia-tzen dut eta lasaia daude etxekoak ere”. Hobetzekotan, eserleku erosoagoak eskertuko lituzke Inzak, ez hain gogorak eta autobusekoen gisakoak.

Villavesa, koherentziagatik

“VILLAVESA zer-gatik hartu? Lehenengo eta behin koherentziagatik, betidanik zerbitzu publikoaren aldekoa izan bainaiz eta edonora joateko autoa hartzea ez litzateke oso koherentea izan. Bestalde, Iruñea hiri txikia

da eta bertan mugitzeko ez dago autoaren beharrik, are gehiago, aparkalekuak direla, OTA dela... diruz eta denboraz askoz garestiago ateratzen da autoa”. Hiri barneko autobusa, edo iruindarrek ezagutzen duten moduan, Villavesa egutero hartzen du 47 urteko Abel Castillok umea haurtzaindegira eraman eta segidan lanera joateko; 10-15 minutuko bidaia laburra egin ohi du.

Zerbitzua ona dela azaldu arren, itxaron denbora murriztu eta agian, linearen bat gehituko lukeela diosku Castillo, “autoak hiri honetan duen erabateko nagusitasuna” mugatze aldera. Helburu horretan beste neurri bat ere jarriko luke martxan: garraio publikoaren doakotasuna.



FERNANDEZEK UTZIA



CASTILLOK UTZIA

GARRAIO PUBLIKOA

autobus elektrikoen gisan). Fabrika edo enpresa bereko langileen joan-etorrirako autobusak ere antolatzen dira eta Bizi! mugimenduak *Eta lanera joaten banintz autobus edo trenez?* kanpaina abiatu du, araudiak ahalbidetzen duelako langilea etxetik lanera autobusez edo trenez joanez gero, nagusiari eskatzea bidaia gastuen %50 ordaintzeko. Trenbide zaharrak ere berritu daitezke (Bilbo-Donostiakoa edo Ipar Euskal Herria zeharkatzen dutenak, kasu). Garraibide publikoen arteko koordinazioa funtsezkoa da, besteak beste aspaldiko aldarrikapena den Euskal Herriko txartel bateratua sortuz –sikiera, erkidego eta departamendu mailako txartel bateratuak–.

Autoaren erabilera gutxitzeko neurriak ere lagungarriak dira, esaterako ordainleku urbanoak ezartzea, edo beste era batera esanda, hirian sartzegatik kobratzea. “Eztabaida dago eta aurka daudenek diote ordaindu beharrak langile-klaseari egingo liokeela min handien, baina hirira autoan datozenak maila altukoak dira batez ere, eta bildutako diru horrekin garraio publiko kalitatezkoa finantzatu ahalko litzateke”, dio Hoyosek. Stockholmen, Londresen, Singapurren eta Milanen ondo funtzionatu du neurriak. “Zeinek du gustuko bere herria autoz gainezka ikustea?”. Ibilgailu pribatua neurrigabe erabiltzea mugatzeko, urbanizazio sakabanatuak saihestu daitezke, kaleak oinezkoentzat egin, merkataritza zentro eta industrialdeak herrian integratu edota bizimodu estilo berriak barneratzeko kontzientziatu.

Kopenhageko Finger Plan delakoa aipatu digu David Hoyosek, egin behar denaren eredu: hasieratik garraioa aintzat hartuz egin zuten hiriaren plangintza, garraio sistema aurreikusi zuten hiria nondik haziko zen zehazteko garaian, eta ondorioz trenaren ibilbidean zehar joan da hedatzen Kopenhage. Ezaguna zaigun etsenplua izango litzateke kontrapuntua: etxebizitza familiabakarreko urbanizazio handiak eginez gero, zaila da gero inguru horretan garraio publikoa txukun integratzea.

Maiztasuna, bidaia-denbora edo geltokien gertutasuna hartu ohi dituzte aintzat erabiltzaileek garraio publikoa baloratzeko garaian. Ekonomikoki, kostu soziala alde batera utzita ere, ibilgailu pribatuarekiko lehiakorra izan behar luke, baina beti ez da hala gertatzen. Esanguratsua da Irungo Amaia Gartziaren kasua: aurtan Agurainen ari da ordezkotako irakasle lanetan, etxetik kasik 100 kilometroira –mugikortasunari begira, irakasleak Euskal Herriko mutur batetik bestera darabiltzan hezkuntzaren ordezkapen sistemak beste erreportaje batera-

Hoyosen esanetan, garraio publikoa merkea izatea ona da, autoarekiko lehiakorra, baina merkeegia ere ez da komeni: “Gauza bat da betebeharrei erantzutea, eta beste bat mugikortasuna piztea”

Datu esanguratsuak

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAN

- **Ibilgailu pribatuaren** erabilera %34,7tik **%36,7**ra igo da 2003tik 2011ra eta oinez egindako desplazamenduak %45,8tik %44,8ra jaitsi dira.
- **Herriarte**ko garraio publikoaren erabilera **%19** egin du **behera** 2002-2010 artean, bereziki trenarenak (%27 egin du behera). Herritarren %87 tren geltokia duten herrietan bizi da, baina herri arteko **desplazamenduen %47** egiten da **trenez**.
- **Herri barne**ko garraio publikoaren erabilera **gora** egin du **%25**, 2002-2010 artean.

NAFARROAN

- Batez beste, joan den uztailen egunero **16.092 ibilgailu pribatu** ibili ziren Nafarroako autopistetan (2011ko uztailen baino %8,4 gutxiago).
- 2012an, urtariletik irailera, **5.365 auto erosi** dituzte nafarrek (iaz epe berean 6.056 erosi zituzten).
- 301.238 auto zeuden 2011 urtean (2010ean baino %1,16 gehiago) eta **932 autobus** (2010ean baino %0,21 gutxiago).

LAPURDI, ZUBEROA ETA NAFARROA BEHEREAN


- 2010 urtean, 621 auto zituzten 1.000 biztanleko, **etxe bakoitzeko 1,38 auto**.
- Garraioa hartzeko **arrazoiak** dira: erosketak egiteko (%16), lanera joateko (%14), norbait eramateko (%12), eskolara joateko (%8), bisitak egiteko (%6), unibertsitatera joateko (%1), bese-telakoetarako (%21).

** Ipar Euskal Herria barne hartzen duen Pirinio Atlantikoak eta Landak eskualdeetako datuetan oinarritzen dira Ipar Euskal Herriari buruz emandako datu guztiak.*

ko emango luke—. Bada, Gartziari merkeago ateratzen zaio joan-etorria egunero dieseldun autoan bakarrik egitea, distantzia ertaineko trena hartzea baino (19,17 euro eguneko joan-etorria trenez, 13,3 euro autoan). Hamar eguneko bonoa hartuta ere, garestiagoa da trena, eta areago, 30 bidaiarako bonoa ez zaio errentagarria, 30 egunetan agortzen delako –larunbat eta igandeak barne–. Bonorik gabe autobus edo trena noizean behin hartzeko tarifak igo dituztela kexatu da jendea, eta Iparraldean bereziki garestia da trena. Hendaia Baionara dau- den 35 kilometroak egiteko esaterako, 7,30 euro ordaindu behar ditu bidaiariak.


Unibertsala eta denentzat izan dadin, garraio publikoak duen prezioaren zein zati hartu behar du administrazioak bere gain? Gutxienez, bateratu egin beharko litzukete

Garraibideen erabilera EAEn, 16 urtetik gorakoan artean (2008)




Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Garraio Saila, Nafarroako Estatistika Institutua, Pirinio Atlantikoak eta Landak eskualdeetako garraio sindikatuak, eta Espainiako Sustapen Ministerioa.

Garraibideen erabilera Ipar Euskal Herrian (2010)



Edukiera handiko errepideak (autopistak, autobia, errepide bikoiztuak)



tarifak, bide bera ezberdin kobratzen baitute trenetan edo metroan, adibidez. Hoyosen esanetan, ondo dago merkea izatea, baina oso merkea izatea ere ez da ona, gehiegi erabiltzen delako; “gauza bat da betebeharreri erantzutea, eta beste bat mugikortasuna piztea”. Jubilatuentzat Eusko Tren debalde jarri zutenan, bazen goizero herrietatik Donostiara bidaiatzen zuenik, ogia eroستا.

Pertzepzio faltsua

“Soziologiako ikasleen artean inkesta bat egin nuen eta ia gehienak garraio publikoaren alde zeuden. Diru sari bat irabaziz gero zer egingo luketen galdetu nien: etxea erosi, alde batetik bestera bidaiatu ala berebela erosi. Erdiak baino gehiagok, garraio publikoarekin ados zeudenez, autoa erosiko lukete”. Iñigo Agirre Deustuko unibertsitateko irakasleari *Euskoen* irakurritakoak argi uzten du guk geuk, politika administratiboetatik harago, autoa dugula lehentasunen artean. Kotxe bat baino gehiago

aurki daiteke etxe batzuetan, eta datuek diote emakumeak eta orokorrean maila ekonomiko baxuagokoak direla garraio publikoa erabiltzen dutenak. Prestigio kontua? Askatasunaren ikur, menpeko eta esklabo ez ote gaituen bihurtu autoak. “Telebistan agertzen diren iragarkiak ikustea besterik ez dago konturatzekeo gizartearen totem handiena dela autoa –dio David Hoyosek–, idealizatuta daukagu eta frogatuta dago jendeak errazago onartzen duela denbora bereko bidaia autoan, garraio publikoan baino. Sarri ez gara konturatzen leku batetik bestera aurreikusi ditugun 20 minutuak 40 minutu bihurtzen direla pilaketekin eta aparkatzeko komerietekin. Ekonomikoki ere, estatistiken arabera autoak duen bizitzaren %5 baino ez dugu erabiltzen, denbora gehiena geldirik dago, eta mantentzea oso garestia da gainera. Pertzepzio kontua da, eta pentsatzen jarritz gero, ikusiko dugu ez dela hain erosoa, ezta hain aukera ona ere”. ■



«Oro har, gure kulturaz turista japoniarrek duten irudia daukagu»

Elkarbizitza jokoan, eta gu berriz, bertso ttikietan...

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

“Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den” kantatzen du Ruper-ek.

Euskaldun izatea, ezkerrekoa edo feminista izatea bezala, nekeza da. Egoera subordinatu eta minorizatuan gaude eta kontrakulturan bizi gara, etengabe haize-kontran. Galdu zen eta izan nahiko genukeen zerbaiten aldeko borrokan gabilta, borroka pertsonal batean, borroka kolektibo batean, barren-barrenetik hasi beharreko borroka batean. Borroka identitarioa da, eta hautu edo identitate pertsonalak ez dira existitzen identitate kolektibo baten baitan ez bada. Horregatik da nekeza euskaldun izatea. Horregatik, eta hizkuntza minorizatua herri minorizatuan baizik ez daitekeelako eman. Nekeza izatea ez da txarra ordea. Borroka egiteko gune bat edukitzea aukera handia da bizitzan, eta borroka egin behar delako egin behar da borroka, ez baitezpada irabazteko. Horrek ez du esan nahi anbizioa izan eta irabaztera jo behar ez dugunik. Munduarekin etengabe pipertzen gaituen eta bizkarrean daramagun euskaltasunaren borroka hori ez da motxila astuna niretzat, altxorra baizik. Altxor hori transmititzea dut helburu, eta ondo pasa eta jakintza neureganatzeaz gain munduaren aurrean jarrera txukunago, justuago eta duinagoa izateko balioko didan borroka izatea nahi dut. Borroka zaila, baina aldi berean ederra.

Nola bideratu, alta, egunerokoan euskaraz bizi nahi eta ezinak sortzen dituen frustrazioak?

Lan handia daukagu gure buruak hornitu eta diskurtsoa eraikitzen, baita ingurukoak janzten ere. Euskaldunak gara? Bai, euskara dugu beraz euskaldunak gara. Gure seme-alabak

euskaldun izan daitezen nahi dugu? Nondik jo behar dugu aukera hori izan dezaten? Esan dezakegu, euskaldun izatea munduan egoteko gure modua dela, munduko edozein hizkuntzako hitzunaren aurrean bera bezalako izatekoa. Bestalde, aldarrikatu dezakegu kultura nahi dugula eta kultura ez dela hizkuntza bakarrik, nazio kontzeptuaren azpian hizkuntza eta kultura horren baitan biltzen den herri edo jendea baizik. Hori nola gauzatzeko den argi eduki behar dugu. Argi eduki behar dugu hizkuntza bat hiltzeko edo biziarazteko soziolinguistikak eta hizkuntzen ekologiak markatzen dituzten marra gorriak zeintzuk diren. Hizkuntza bat biziarazi nahi baduzu gune hegemonikoak sortu behar dizkiozu, bera nagusi den espazioak eskaini. Hori da guk sinetsi eta ingurukoei sinestarazi behar dieguna. Bai, plaza honetan euskaraz hitz egiten ez bada euskara galtzera doa. Hemen erdaraz egiteagatik ez dela ezer gertatzen? Bai, hemen erdaraz egiteagatik euskara galduko da, beste hizkuntzek jan egingo dutelako. Hori hala, nik zergatik nahi dut euskaldun ez denak nirekin euskaraz aritzea? Zer

NORTASUN AGIRIA

Lorea Agirre, Beasainen sortua 1968an. Informazio zientzietan lizentziatua, *Euskaldunon Egunkarian* eta *Berrian* aritua, HUHEZiko irakasle eta Sorguneak ikertegiko kide da egun. *Rosa Luxemburg* (2000), *Gazteak eta Kultura* (2001), *Ipurtargiaren itzal luzea* (2003), eta *Gezurra ari du* (2004) liburuak idatzi eta *Berria* egunkarian argitaratzen ziren *Katuajea* iritzi artikuluen egilea da. Azken hauteskundeetan, EH-Bilduren Gipuzkoako zerrendetan aurkeztu zen.





esan nahi diot euskaraz ez dakien tabernariari tragoa euskaraz eskatzen diodanean? Zer ulertzen du? Hori gogoetatu beharra dauka. Ezberdintasuna markatzeko bada, ni hemengoa naiz eta zu ez, agian ez digu balio. Berak nahitaez ulertu beharra daukala azpimarratzeko bada, akaso ez digu balio. Norbaiti euskaraz zuzentzen natzaionean nire hizkuntz komunitateko kide izatea nahi dudalako da, gonbidapena luzatzen ari natzaio.

Euskaldunek soilik osatzen dute gure hizkuntz komunitatea?

Hizkuntz komunitateko kidearen definizioa beste hizkuntz komunitateetan oso gauza ebidenteia izan arren, denboran eta espazioan mugitzen den terminoa da gurean. Bat nator Joxe Azurmendirekin gure hizkuntz komunitatea euskaldunok eta euskararen patuarekiko kezka duen edonork osatzen dugula dioenean. Jende horrek ez dauka hizkuntzarik baina badu kontzientzia, bere ondorengoak euskaldunak izatea nahi du. Zer gertatzen da, ordea, hizkuntza ukan eta kontzientziarik ez daukatenean? Beste hainbeste eskatu edo irakatsi behar zaie. Euskaldun izatea, kontzienteki edo inkontzienteki, kontzientzia bat praktikan jartzea da. Orain arte ohartu ez

direnak ohartarazi behar ditugu, euskararen erabilpenean jarrera aktiboagoa, errealagoa, benetakoagoa eta euren buruarekiko zintzoagoa izan dezaten. Jakin dezatela ez dakitenak ere kontzientziaren bidez gure ondoan daudela, gure ondora etorri nahi dutela, eta hizkuntza daukagunok besteei mundu hori zabaltzeko kontzientzia izan behar dugula.

Aspaldion, kontzientzia modaz pasata, zentzu-hustuta dagoela irakurri dut han eta hemen.

Kontzientzia eta militantzia ez daude modan baina niri hori interesatzen zait. Paralelismo bat eginez, emakume izatearen kontzientzia hartu egiten duzu, ez da estetika kontua, egoera gogorren aurrean garatzen duzun bizitzarekiko jarrera baizik. Horrek ideologia edo pentsamendu batean murgiltzeko ateak zabaltzen dizkizu, zuregandik hasita emantzipazio borroka bat eman behar dela pentsatzeko bidea. Antzera bizi dut euskararen auzia. Noiz arte sinetsiko dugu eskubide indibidualen erreinuan bizi garela? Taldeak, hizkuntzak, giza-harremanak, justiziak ez dute ezer balio eta dena da “nik nire eskubideak dauzkat eta librea naiz merkatu libre eta kontsumista honetan”? Hori erabateko gezurra da. Ados, indibidualismoa behar-beharrezkoa da, feminismoak ere indibidualismoari zor dio bere borroka, baina horrek ez du esan nahi kolektibitateak ez duela ezertarako balio, ideologiak ez duela ezertarako balio. Errealitate kontsumista hau sortzerakoan ez al digute ideologia bat pedagogikoki zabaldu hiperindibidualak ginela eta ezin genuela taldean jardun sinetsarazteko? Hori erabateko gezurra da.

Bestela, ez litzateke grebarik egongo, ez legoke presoen aldeko manifikazio, ez feminismo, ez hizkuntz borrokarik, ez ezer. Kontsumismoak ideologia guztiak jan, estetika huts bihurtu, eta saltzea beste helbururik ez du, baina bizi ditugun garai sozio-ekonomikoetan nor ausartzen da hori lortu duela baieztatzen? Ideologiak hil zirela esaten da, baina eskumakoak ez al du hor jarraitzen? Nahitaez, garai ideologikoetara bueltan gatzelakoan nago.

Gipuzkoako Aldundiak bere kanpo-jarduna euskara hutsean egitea erabaki ideologikoa da. Zergatik hartzen da euskara hutsean egitea “inposaketatzat” eta erdara hutsean aritzea “mundutarrago egiten gaituen erabaki demokratikotzat”?

Ez garelako geurez, bestez baino. Besteek esaten digute zer garen. Besteek beste, talde hegemonikoak erabakitzen du, hitz egiteko modua, gaitegia... Informazio guztia bere esku duenez berak erabakitzen du parekoa

arbola ala landarea den, eta talde subordinatuak ere horrela definitzen ditu. Euskararekin inguruko botere hegemonikoek erabakitzen dute euskalduna zer den, nolakoa den, eta euren mundu demokratiko, unibertsal eta zoragarri horretan inor molestutzen ez duen gunetxoa toleratzen digute txintxo portatze-kotan. Azkenerako, gu garela txikiak, partzialak, partikularrak, euskarak etxerako soilik balio digula eta erdarak denerako sinesten bukatzen dugu. Horixe da boterearen indarra. Ezinbestekoa da gezur horiek desmuntatzea. Hemen hizkuntza hautua egin dezakeen bakarra elebiduna da, elebakarrak ez dauka hauturik. Frantsesez edo gazteleraz soilik badakizu, ez duzu euskaraz hitz egingo. Bestalde, euskara hutsezko guneak behar ditugula ulertu behar dugu. Langileak bildu, beraien burua definitu, eta borroka bat aurrera eramanez sortu da langile mugimendua. Feminismoa berdin. Baztertzailak, elitistak, arrazistak, etnizistak, eta intoleranteak garela esango digute, baina ze logikak esplikatzen du hizkuntza baten gunera hizkuntza hori ez duen norbait etorri eta hizkuntza ordezkape-na ematea? Zerk exijitzen du? Zergatik onartzen dugu? Nik nahi dut euskaraz ez dakitenak gurera etorri daitezen baina horrek ez du esan nahi hizkuntza ordezkatu behar dugu-

nik. Horregatik prest nago hizkuntz normalizazioak, hizkuntz ekologiak eta komunitate oso baten nahiak gune horiek %100 euskaldun mantentzea exijitzen dutela nornahiri esplikatzeko, baina ez diezagutela gure burua etengabe traizionatzeko eskatu.

Euskararen egoera soziolinguistikoak zenbat eta nola eragiten dio euskal kulturari?

Hizkuntza minorizatua herri minorizatuan baizik ez da gertatzen, eta halabeharrez kultura minorizatua dakar. Euskal kultura, hizkuntza bezala, ez dago korronte nagusian, periferiako kontua da. Egoera subordinatu batean dago kultura. Nola iristen da naturalki bere bezero naturalengana euskal kultura elikatzen duen sormen lana? Une hauetan ez da iristen. Zergatik izango garen euskaldun galdetzen dugunean kultura oso elementu garrantzitsua da. Nik badakit ingelesez, baina ez naiz ingeles kulturaduna, eta gutxiago, ingeles komunitateko kide. Hizkuntza baten jabeakuntzak atzetik dakarren kultura eta ondoren etorriko denaren egikaritzea edo parte izatea esan nahi du. Bestalde, planoak bereizi behar dira, ez baitauka logikarik euskal kultura eta espainiar kulturarentzat politika komunak eramateak. Zergatik ez dugu egin euskararen beharretatik abiatutako



gaztezulo com
HI ETA HIRE MUNDUAK

**20€ BAKARRIK
URTE OSORAKO**

EGIN HARPIDETZA
943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com



**PREZIO TXIKIA
OPARI HANDIA**

**GUK ZURI ERE
OPARI... aukeratu!**

**ESNE BELTZAREN
CD+DVDa**

**GATIBUREN
DISKO BERRIA**

politika? Minorizazio egoera horrek kultur politika horren oinarriak zertan baldintzatzen ditu? Halabeharrez zaletu, sortzaile eta bitarteko guztien arteko harremana askoz estua goa izango da. Guk ezin dugu eseri eta kontsumismoak agintzen digun guztia jan. Horrek galbidera garamatza. Gurean ezinbestekoa da sortzaile, eragile eta hartzaileen arteko sarea osatzen dugula jakitea. Premiazkoa, kultura zentralitatean jarri eta hizkuntzaren beharrei erantzutea. Nahitaezkoa, egiten duzun hizkuntza horretan kultura bat elikatzen ari zarela eta ez beste bat jakitun izatea. Derrigorrezkoa, sortzaileak hizkuntza horren egoera soziolinguistikoa gogoan edukitzea. Kulturaren minorizazioaz kontziente izan behar dugu eta ikusgarritasunean izugarri galdu dugula jabetu. Hil ala bizikoa da ikusgarritasun kanal horiek zabaldu eta libre mantentzea. Kulturarekin estatu politika egin behar dugu, herri baten etorkizuna ardazteko kultur nazioaren kontzeptua zein garrantzitsua den jakinda. Nazio kulturalaren klabeen pentsatzeko garaia da. Euskal kulturak, euskarazko kulturak, izan behar du muina eta berriazko politikak behar ditu.

Kultura esportatzen hastean, zergatik esportatzen ditugu arte mutuak, itzulpenak eta sukaldariak?

Orain arte esandako guztia galdera horretan laburbiltzen da. Diskurtsoa galdu dugu, bes-



OFF THE RECORD

Ifrentzua

Eguzki beteak Alkizako plazan. Urteko azkenetakoa. Kanpoan egin dugu elkarrizketa, eskolako umeen jolasorduak alaitu duen sosegu betean. Atsegina da zuk buruan erabili dituzunak beste baten ahotan fin eta zorrotz teorizatuta entzutea. Atsegina aurkiaren ifrentzua eta ifrentzuaren aurkia etengabe bilatzen duen jendea topatzea. Mundua konpondu izanaren sentsazioarekin itzuli naiz etxera. Pena bakarra daukat: inork ez dit "eskirol" deitu. Greba eguna da.

teek definitu gaituzte, indar hegemonikoek esan digute euskal kultura zein hizkuntzatan den, zer den esportagarria eta zer ez. Hizkuntz adierazpideek zentralitatea galdu dute, eta folkloraak, gastronomiak eta paisaiak irabazi. Guk galdetzen badiogu 18-20 urteko euskaldun oso bati zer den euskal kultura, sukaldaritza, folklora, trikitixa, pilota, txapela eta Chillidaren artea erantzungo dizu. Zer ari gara jende horri saltzen? Euskal kultura ez dela euren bizimoduarekin bat datorren zerbait, historia, txapela, baserria eta gaztarekin lotutako zerbait baizik. Baina rapa ez da euskal kultura? Twitter ez da euskal kultura? Egungo gazte askorentzat ez. Ba jende horri esan behar zaio baietz, badela, euskal kultura euskaraz egiten den guztia dela. Gunetxo batzuetan badakigu euskal kultura euskaratik eta euskaraz egiten dena dela, baina oro har, gure kulturaz turista japoniarrek duten irudia daukagu. Esportatzen hasita hitza berariaz ekiditen da konfliktuak saihestearren, eta azkenean, geu gara geure gezurra irentsi dugunak. Zertarako da euskara euskaldun izateko ere balio ez badigu? Irratiak hamar euskaldunetarik biri ez zaiela txokolatea gustatzen dioenean denok dakigu euskal herritarrez ari dela, eta ez euskaldunetz. Beraz, hizkuntzak ez badu gure burua definitzeko balio, kultura kanpoan zabaltzeko oztopo baldin bada, eta gazteei ez badiegu zentrala dela esaten, nora goaz? Ez al da hori jaso duguna, gaur egunera ekarri duguna, eta ahal dela pauso batzuk aurrerago eman nahi duguna? Ez al da euskara gu hobeto, eta hitzaren zentzu zibil eta politikoan, sanoago bizitzeko elementu bat? Baina ez, bideak ixten dizkiogu, hizkuntza gabeko kultura baten izenean gatazkak ekiditen ditugulako, eta azpian dauden kontraesan eta errealtate desberdin horiek oso ur handiak direlako. Horregatik, hizkuntza oztopo mingarria dela sinetsita, kafe bat euskaraz eskatu eta erdaraz eskatzen bukatzen dugu buru-makurkako "barkatu" baten ostean. Dena da bat. ■



- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia

☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00





Bizkaiko Bertsolari Txapelketa
2012

FINALA

Abenduaren 15ean
17:30ean

Miribillan (Bilbao Arena)

www.bizkaikotxapelketa.biz



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

bbk

argia





INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Nahierako justizia internazionala

KROAZIAK independentzia aldarrikatu zuenean, bere serbiar gehiengoko bi lurraldeek (Ekialdeko Eslavonia eta Krajina) independentzia ere aldarrikatu zuten. Hortxe hasi zen Kroaziako guda. Gero, bake akordioak iritsi ziren. Hauen arabera, bi errepublikei babes internazionalako autonomia segurtatu zitzaizen. Baina, 1995ean, Bosnia-Herzegovinako guda bukatzen ari zela aprobetxatuz, kroaziarrek eraso bat burutu zuten Krajina eskuratzeko (II. Mundu Gerra ostean Europan inoiz egin den operazio militar handiena). Ordurako ejertzito kroaziarrak AEBetako ekipamendu militarra eta adi-tuak zituen lagun. Erasoan, Helsinki Batzordearen arabera, 677 zibil serbiar hil

aurkako krimen gehienek izan duten zigorgabetasuna da. Tartean, Kosovoko serbiarren aurkako hilketen testigu bat, Jugoslavia ohiko Zigor Auzitegiak babes-tua (sic), hilda agertu zen Alemanian.

Zoritzarrez, serbiarrek maiz pairatu dituzte bidegabekeriak. Adibidez, II. Mundu Gerran kroaziarrek 750.000 serbiar inguru erail zituzten. Beraz, gutxi gorabehera Kroazia eta Bosniako serbiarren heren bat desagerrarazi zuten (ondorioz, serbiarrek Bosnian gehiengoa izateari utzi zioten). Urte haietan serbiar herria judua bezain kolpatua izan zen. Baina denborak juduei beraien borroeroen barkamena eta sufrimenduaren errekonozimendua ekarri badie, serbiarrek ez dute horrelako keinurik jaso. Titok, Jugoslavia-ko herrien anaitasuna defendatzeagatik, historiako atal horiek ahaztu behar zirela erabaki zuen, eta hala, serbiar herriak arantza hori barnean mantendu zuen. Horrek, hein batean, esplikatzen du 90eko hamarkadako gerretan serbiarrek izan zuten jarrera, baina, beraiei, Israeli ez bezala, ez zaie ezer ere barkatzen. Zergatia aspaldi azaldu zuen Bakerako Ikasketen katedradun Johan Galtungek:

“Serbiarren aurkako jarreraren sakoneko arrazoiak garbiak dira: okerreko alfabetoa dute (zirilikoa, latindarra beharrezkoa). Okerreko kristauak dira (ortodoxoak, ez katolikoak). Okerreko okupatzaileek menderatu zituzten (turkiarrek, austriarrek beharrezkoa). Okerreko lekuan daude (Ekialdean, ez Mendebaldean). Berlin-Ankara-Bagdad ardatzeko bidea oztopatu zuten. Austriari lotzearen aurka egin zuten (zibilizazioaren ezaugarriak estimatu gabe); eta, gainera, Vienako tronuaren oinordekoaren aurka tiro egin zuten. Errusiarrek bezala, inbasore naziak hil zituzten (beraiekin elkarlanean aritu beharrean, esloveniarrak, kroaziarrek eta bosniakiar askok egin zuten bezala). Azkenik, bere hiriburua estatu komunista batena izan zen. Zer espero daiteke dena hain aldrebesturik duen nazio batez?”. ■



Denborak juduei beraien borroeroen barkamena eta sufrimenduaren errekonozimendua ekarri badie, serbiarrek ez dute horrelako keinurik jaso

zituzten, 563 desagertuta daude eta 200.000 inguruk ihes egin zuen Serbiara. Hori guztia NATOren laguntzaz eta NBeko soldaduen utzikeriaren aurrean gertatu zen. Izan ere, ekintza militarra burutu baino lehen, kasko urdinak Krajinatik joan ziren gobernu kroaziarrari eskuak libre utziz.

2011n, Krajinak operazio militarren arduradunak ziren Ante Gotovina eta Mladen Markač kondenatuak izan ziren gerra eta gizateriaren aurkako krimenengatik. Baina, berriki Jugoslavia ohiko Zigor Auzitegiak helegiteak onartu eta aske utzi ditu biak. Beste behin, Hagako auzitegi honek argi erakutsi du bere alderdikeria. Bere eskuetatik pasatu diren akusatatu guztien kondenatu zerrenda ikustea baino ez dago: ia 70 serbiar, dozena bat kroaziar, bost bosniakiar (musulman bosniarrak) eta bi albaniar. Zigor tamainen desberdintasuna ere handia da, serbiarren kaltetan. Halere, kezagarriena serbiarren



GAUZAK ARGİ
Bakartxo
Telleriak:

<ERABAKITZEKO
ESKUBIDEA
EZIN DA INPOSATU>

HORixe ezetZ:
ESKUBIDEAK
aplikatu egiten dira.

Hemen ESKUBIDERIK EZA
diguTE INPOSATZEN !

...eta aspaldiskotik



Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA ♦



JAKES LARRE

Ezberdina

LERRO HAUEK publikatzean –zenbait astez beste egiteko batzuetan aritu ondoan– lanera itzulia izanen naiz. Joatean, borta zerratu nuen hainbat galderekin, eta momentu honetan nago ea zer aldatua ote den tarte horretan, zerbait aldatu bada. Azken hilabeteetan abiatu ekimenek nolako geroa dute? Lurralde antolaketa eta lekuko konpetentzia, euskararen geroa, hizkuntzen Euro-karta eta beste. Egunerokotasunean buru-belarri ari, inpresioa da deus ez dela aldatzen, deus ez gertatzen, fosilizaturik preso gaudela. Bizkitartean...

Hautetsien Kontseiluan gehiengo zabala Iparraldearentzat Lurralde Elkargo espezifiko baten alde agertu zen, aspaldiko eskakizunak onetsiz.

Hortik, bat-batean independentistak deskubritu genituen PSko nahiz UMPkoen artean Ipar Euskal Herriaren ezagupenaren aldekoak daudela.

Giza eragileen gehiengo ikusi zen karriketan gain-di beste milaka jenderen artean presoen hurbilketaren eta konponbide politikoaren alde: historikoa. Haatik, Manuel Valls Barne ministroaren gisakoen mespretxua baizik ez da agertu momentukoz, hemengo gai guztiei buruz bezala funtsean. Esperantza piztu orduko atek hetsi nahi izateko mania.

Aurore Martinen Espainiaratze ahalkegarriak frogatu zigun, hamar mila pertsonako manifestaldi hark

baino hobeki, ez genuela hemen gaindi AHTren beharrik, Maule eta Madril junta baitaitezke bi oren laburrez.

Jakin zen ere, datorren martxoan 18. Korrika Baionara helduko dela, ilusio handia sortzen badu ere,

beste zenbat Korrika beharko ote den mahai gainean jarriko du, jakinik helduen euskalduntzearen arloan beste sartze bat burutu zela botere publikoen sostengu eta adierazpen argi eta sinpleenik gabe.

Anartean, Hizkuntzen Euro-kartaren errebisatzeko engaiamendua hartu zuen Parisek, berria ona bazen ez zuen gaitzeko efekturik ukan, jakin baitakigu euskararen geroaren gakoetarik txikiena baizik ez dela.

Ametz Arzallusek hirugarren aldikoz jantzi zuen Iparraldeko bertsolarien txapela; oroz gainetik Odei Barroso bigarren heldu zen.

Eta holako bizpahiru mila karakteretan nekez kokatu beste franko. Horrela da. Aspaldian landuak eta zabalduak bide egin du jada eta ez liteke gelditze-kotan. Urrats bat aitzina eta beste bat gibelera?

Beti berdin? Gaur nehorik ez du hori erraten. Jakin gabe ere zer kausituko dugun itzultzean, argi da: Iparraldea desberdina da. Definitiboki betikotasunean egunero bere doia ezberdinago. ■



*Egunerokotasunean
buru-belarri ari,
inpresioa da deus
ez dela aldatzen,
deus ez gertatzen,
fosilizaturik preso
gaudela*

DANI BLANCO



**Ixiar
Rozas**



IDAZLEA

Ipurtargia

DESAGERTZEAR dagoen zizare argiduna. Ikusi nahi ez duenarentzat egiten da oharkabe, ordea. Hobe esanda, halako distira leuna ikusteko leku egokian ez dagoenarentzat desagertzen dira ipurtargiak. Animaliaz gain, itzaliz doaz urteetan begi-bistan izan ditugun ipurtargi batzuk. Kultura nahiz artearen arloan, feminismoaren arloan, militantzian, esperimentazioari, kreazioa benetan zabaldu eta luzatzen duen esperimentazioari, urteetan bidea eman diotenak. Beste asko itzaltzen doaz halaber haien gerizpean. Hilberria den lagun batek esaten dio besteari: lasai,

erori zaitez orain gorantz, egin jauzi akabatu zaituen espaloitik leihora, gorantz, itxi leihora, kendu bankua, itxi gortina, egizu erori eta zutitu berri denaren pape-
ra eta kendu dizuten etxea bueltatuko dizute, distiratsu berriro. Argia galtzea ez da desagertzea. Ipurdiaz gain, zer litzateke argia ere buruan jartzea: ezkortasuna antolatzeke, hitzen benetako esanahia berreskuratzeko, gauzen nora-bide zehatza. Udako gau eder batean soroetatik eta bidegurutzetatik haratago doazen ipur-burutargiak. ■



**Peio Dufau**

♦ BAKE BIDEAKO KIDEA,
SINDIKALISTA

Bakea helburu bide-lanean

GURE TALDEA Batasuneko kide Aurore Martinen aldeko elkartasunean eratu genuen hastapean. Lehen urratsak Euro-agin-duaren kontra eman genituen, inoizko mobilizazio azkar eta zabalenarekin. Bakearen aldeko manifestaldi hura 2011ko abenduaren 10ean izan zen. Deialdiak 4.000 jende erakarri zuen Baionako karriketara. Ondoren, Aurore Martin bakean utzi zuten, nolabait erranik. Alta bada, Aieteko Konferentziaren garaia zen, eta taldean eztabaida berriak sortu ziren bakearen inguruan. Barne eztabaidei eta formazio ikastaroerik esker, mugimendua sortzea erabaki genuen: Bake Bidea. Iparraldeko bake talde hau hainbat alderdi politiko, sindikatu, elkarte eta mugimenduetako jendek osatua dago.

Ipar Euskal Herriko egoera ez da batere Hego Euskal Herriko bera. Hemen euskaldunak bagaude ere, gizartearen zati batentzat euskaldunak ez dira existitzen, ez bada folkloreakin agerbide gisa. Alabaina, ez dago mugarik edo horrenbesteko zatiketarik euskaldunen –abertzaleen– eta gizartearen beste aldean artean, izan ere, borroka armatuak min gutxiago egin du hemen.

Iragan hilabeteen Frantziako Barne ministro Manuel Vallsek Lurralde Elkargoaren eskaera ETArekin lotu zuen, eta ondoren, Aurore Martinen atxiloteta eta Espainiara kanporatzea etorri ziren. Gertakari hauek gure gizarteko sektore aintz inarrosi dituzte. Alderdi politiko guztietako hautetsi gehienek –Euskal Herrian hala nola Frantzian– bake prozesuan parte hartzera

deitu diote Frantziako Gobernuari. Frantziako Gobernuaren ezetzak eta jarrera hertsia jende are gehiago engaiatu dute bake prozesuaren alde.

Bake Bidea mugimenduaren sorreraren segidan, Herrira-k antolatutako manifestaldira jende asko bildu zen preso politikoen egoera salatzeke. Aldi hartan 15.000 lagun elkartu ginen Baionan. Horrelako manifestaldiek ez dute egundaino azken horrek izan duen arrakastarik izan. Horren lekuko dugu, lehen aldikoz presoen aldeko euskal gizartearen atxikimendua Frantzia osoko hedabideetan aipatua izana.

Ipar Euskal Herrian ez da inoiz gaur egun lanean ari den bezalako mugimendurik lortu. Horrek Bake Bideako kideei esperantza handiak sortu dizkigu. Nahiz eta, egiari zor, egiteko lan luzea gelditzen den. Lan gaitza egin beharko dugu geroan Gobernuari gure iritzia entzunarazteko eta are gehiago onarrazteko, batez ere Manuel Vallsek zuzentzen duen Barne Ministerioari.

Esperantza ez dugu galtzen haatik. Nahiz eta mugimendua berria izan, azken gertakariak Bake Bidea erreferente bilakatu dute Ipar Euskal Herrian bake prozesuari dagokionez. Mugimendua are gehiago zabaltzeko dugu orain, gizartearen aniztasuna aintzat hartuz, taldea handitzeko xedetan. Zentzu horretan ETAren azken agiriko hitzak baliatu behar ditugu bake iraunkorra eraikitzeko Ipar Euskal Herrian, baita Euskal Herri osoan ere. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Made in Galiza



INIGO AZKONA

Xabier Paya Ruiz

Doinua: Están as ruas molladas.

Lapur batek herriz herri
ebatsitako hitzak
edo galdutako berben
bulegoko desditzak;
Castelao zenarekin
konektatzeko guijak...
horrelako gertaerak
dauzka *Made in Galizak*.

Liburuan bildutako
istorio bakoitzak
euskaldunon enpatia
suspertuko du behintzat;
galegoa izan arren
arrotz askorentzat,
galegoen bizipenik
badu gure bizitzak.

Nahiz lan hau euskaratzeak
eragin hainbat neke,
hizkuntza handi batera
ezin itzul liteke,
soilik hizkuntza txikiak
uler baitezakete
euren arazo handien
ametsak nola bete. ■



Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



Euscool manifestua

SOZIOLINGUISTEK, guruek, gure adituek oro, etengabe errepikatzen digutelarik euskarak erreferente kultural potenteak, produktu kultural masiboak dituela premiazko, itsu dira euskara salbatzera datorren mugimendu funtsezkoarekin. Euskal kulturaren *becetze* betean gaudelarik, ez dugu ikusten euskararen biziraupena bermatuko duen erauntsia. Oinarriparrak eta autozentruak *dokierki* banatzen dizkigute, baina, egiatan, linboan da euskal intelligentsia. Mamu bat baitabil Euskal Herrian. Orain eta hemen, benazko coola, benazko hipsterra izateko bidean ezinbesteko bihurtu baita euskara.

Rockdelux aldizkariak Anari eta Lisabören azkeneko diskoak gurtu zituenetik euskara zentrala bihurtu da ezein gezurmendi indietan. Mursegok euskaraz omentzen du Zal Frantses elebarrak

Experienceekin gozatzen ahal dute baina arrotz zaie Willis Drummond. Giorgio Bassmattiren fana izan zaitezke gaztelania elebarra izaki, baina fansa izatera iristeko euskara jakin behar. Horrela ulertuko baituzu bakarrik, esaterako, bere *Kafea eta Galletak* diskoa. Diskoari izena ematen dion Kafea eta Galletak egitasmoan ere euskara entzungo duzu –eta egon badago haren akuiluz euskara ikasten ari denik–. Baina cooltasuna geruza orotan barreiatzen den zerbait da. Jai girorako musikan, adibidez, hor ditugu 3gabe2 eta beren post-berbenak.

Literaturari dagokionez, Harkaitz Canoren nobelak beti urtebeteko atzerapenarekin irakurtzera kondenatua egongo zara ez badakizu euskararik. Behialako argitaletxe independenteek arima saldu dutelarik, euskara hutseko Susa argitaletxea bilakatu da *moloitasun* editorialaren azkeneko gotorleku.

Zineman ere asko galdu dezakezu euskararik jakin ezean. Koldo Almandoen kortoak, Angel Aldarondoren muntaia eta post-muntaiak. Gaztelaniarekin *La pelota vasca* ikus dezake-

zu baina euskararik gabe *Ondarruko vasca* duzu galduko. Baita *Ataun of the Dead* ere.

Prensa idatzian Idurre Eskisabel eta Xabier Gantzarainen eguneroko zutabeak, Zaldieroaren tirak, Xabier Etxaniz Rojoren maratila, Angel Erroren post-zutabeak. Telebistan moloimetroa topera Orain (R.I.P), Beranduegi eta Gorka Bereziartuaren post-txisteeekin. Irratian Hala Bedi eta Ttanttakun Irratia. Twitterren @joxe-ren tweet eta traolak, Trinkotzaindia, @txargain-en retweetak, @luistxo-ren PDFaren kontrako guda.

Politikagintza ere ez dabil aparte. Ezagun da gaztelania batuarekin aski ongi jarraitu ahal izango dituzula ezker abertzalearen manu nagusiak, baina lagun, sortzaile gisa benetan *avant gardean* kokatu nahiko

bazenu euskara beharrezkoa izango zaizu Imanol Galfar-sorekin liburuak irakurtzeko. Jeltzalea baldin bazara, ordea, gaztelaniarekin lain izango duzu Azkunaren graziei barre egiteko baina, adiskide, ezin izango duzu polimeroei buruzko Josu Jonen doktorego tesia irakurri.

Bada galera gehiagorik: Erramun Gerrikagoitiaren euskara preposizionala, Iruña-Veleia aferra, Urtzi Ihtzaren teoria kosmikoak, Xabier Azkargortaren frikari eta afrikariak. Nola izan benetako *modernetia* horiek guztiak galduta? Ezinezkoa da. Ray-ban Wayfarer-ak eramane ditzakezu, The XXen azkeneko singlea Ipodean, koadrodun alkandora, Lomography argazki kamera aldean, baina euskaraz bizi ezean denak alferrik izango zaizkizu cooltasunaren goren mailara iristeko. Orain eta hemen euskara da diferentzia. Laster hasiko dira betetzen euskaltegi zein barnetegiak.

Munduak begiratuko dio miraz, Euskal Herriak esango du ozen: Euscool Herrian euskaraz. ■



Antton Olariaga



KAFE ANTZOKIAK ETA KULTURGUNEAK

Euskal kulturaren oasiak

Bilboko Kafe Antzokiak 17 urte beteko ditu datorren abenduaren 15ean. Euskal Herrian sortu diren beste kafe antzokien eredu izan zenak bere horretan dihardu, 100etik gora langile ditu eta 250etik gora ekitaldi antolatzen ditu urtean. Euskara eta euskal kultura errentagarri noiztik den galdetu diegu haiei eta antzeko beste zenbait espaziotan dihardutenei.

| MYRIAM GARZIA |



LUIS JAUREGALITZO / ARGAZKI PRESS

GOIZ BURRUNDATSUA Bilboko Kafe Antzokian. Gabriel Aresti euskaltegiko ikasleak hamaiketako egiten ari dira eta kafe-makina jo eta su ari da lanean. Ikasle batek “Bi ebaki, pintxo eta zukua” egin dio eskaera, euskaraz, barraren atzean dagoen zerbitzariari. Orain dela 17 urte, Bilboko Kafe Antzokiak ateak zabaldu aurretik, gauza arraroa zen hiri honetako tabernetan euskara erabiltzea. Zer esanik ez erdigunean, Albiako lorategien ondoan. Ikasleak, apurka-apurka, ikasgeletara

Bilboko Kafe Antzokia, 10. urteurrenean.

doaz bueltan –Kafe Antzokiaren goialdean dago euskaltegia–. Guk, lasaiago, elkarrizketari ekin diogu. Xabier Monasterio, Gabriel Aresti euskaltegiko sortzaileetako bat, eta Mikel Urbeltz, Kafe Antzokiko Kultur arloko arduraduna ditugu ondoan.

“Oso arin eta, era berean, oso astiro igaro dira 17 urteak” azaldu digu Xabier Monasteriok, “Ematen du Kafe Antzokia betidanik egon dela zabalik, baina guri atzo goizean gertatu zela iruditzen zaigu batzuetan”.



**Lisabo taldea
Plateruenan.**

1978an zabaldu zen Gabriel Aresti euskaltegia, Bilboko Kale Nagusian, “frankismo osteko urte berrietan” esan digu euskaltegiko sortzaileak. “80ko hamarkadan, ikasleak euskalduntzen ari ziren, baina ez zuten euskaraz bizitzen hasteko espazio naturalik. Bilboko jendeak, bertan bizi ginen euskaldun zaharrok eta euskaltegietatik ateratzen ziren euskaldun berriek halako toki errefentzial bat behar genuen, elkarrekin batzeko eta euskararen erakusgarri izan zedin”.

Aspaldiko asmo horrek zabaldu zuen Bilboko Kafe Antzokia zabaltzeko bidea, 1995ean, Bixente Deunaren elizaren ondoko zinema zaharrean, apaizena aspalditik. “Espazioa errentan lortu genuen luzerako, eta irakasle talde honen kreditu pertsonalen bidez ordaindu zen, arrisku handiz, inork ez baitzekien nolako harrera izango zuen proiektuak” jarraitu du Monasteriok. “Labur esanda, euskararen herriaren eta Euskal Herriaren simulazio txiki bat egitea zen gure asmoa”. Ateak zabaldu zituen harrera ezin hobea izan zuen, “horren zain baitzegoen jendea, euskararen erreferentzia behar zen Bilbon”.

Bigarren apustua heldu zen atzetik: Ondarroako Kafe Antzokia. “Bilboko Kafe Antzokia sortu zuen jende taldean Ondarroako jende asko dago”, argitu digu Mikel Urbeltzek. “Testuingurua ezberdina zen, euskara eta euskal kultura ez dira nagusi Bilbon. Aldiz, Ondarroa herri euskalduna da guztiz. Herrian aisialdi eta kultura aukerak eskaintzea zen helburua, euskararen kontrako eraso ei aurre egiteko, esparrua gal ez zezan, espazioak irabaz zitzen. Nolanahi dela ere, euskararekiko atxikimendua bultzatzea izan da gure asmoa, bai Bilbon eta bai Ondarroan” jarraitu du Urbeltzek.

Zenbat Gara kultur elkarteak babesten du Bilboko Kafe Antzokia, ia 1.000 bazkide ditu eta ia denetarik biltzen du, baita bertako langileak ere. Urbeltzen hitzetan, “euskaraz bizi nahi duen orori irekia baita elkarteak. “Gure asmo guztiak biltzen ditu Zenbat Gara elkarteak”, jarraitu du Urbeltzek. Alegia, euskara-

ren eta euskal kulturaren sustapena eta euskara bera bizimoduan txertatzea. “Euskara Bilboko erdigunera ekarrita, euskarari behar besteko duintasuna ematea, euskara herriari lotzea”. Oso printzipio zabalak direnez gero, haren orbitan denetarik egin daiteke: euskaltegia, kafe antzokia, irratia –Bilbo Hiria irratia sortu zen garaian, euskara hutsez emititzen zuen irratia ez publiko bakarra zen Bilbon–, Atoan argitaletxea, Bakaikuko barnetegia... “Nahiz eta lan eremu ezberdinetakoak izan, denok ari gara euskararen normalizazioaren inguruan lanean”, dio Monasteriok, “Hizkuntza, kultura eta herria dira Zenbat Gararen zutabe nagusiak. Kulturarik gabe ez dago herririk”.

Enpresa-egiturari dagokionez, eredu kooperatibistari jarraitzen diote Bilboko Kafe Antzokian. “Autoeraketan eta autofinantzazioan sinesten dugu, ekonomia partekatu horrek aukera ematen digu nolabait defizitarioak diren zuloak beste toki batzuetatik estali ahal izateko” azaldu du Monasteriok.

“Kafe Antzokia ez da areto soila” jarraitu du Mikel Urbeltzek, “zer egin nahi den, zer bultzatu nahi den, barruan zer gertatzen den, horixe da garrantzitsua. Aretoa eta dirua beharrezkoak dira, baina funtsezkoena lan taldea da. Aretoa eskola da baina arima ere behar da, eta hori pertsonak dira, helburu horiek betetzeko lanean ari direnak”.

Bestalde, Kafe Antzokiak beti izan du leiho bat irekita kanpotik datozen ekimeneci. “Euskaldunok ez baitugu soilik euskal kultura kontsumitzen”, Urbeltzen hitzetan, “kanpora begira ere, egon beharra dago”. Xabier Monasteriok azaldu digunez, “euskararekin zerikusirik ez duten aretoen eredu ere izan da gurea. Lehen kontzertuak frontoietan gertatzen ziren. Orain, aldiz, badira leku duinagoak horretarako. Bilboko gauari ere euskara txertatu nahi izan diogu”.

Plateruena eta Espaloia

Bilboko ereduak ondo funtzionatu duenez gero, eta oihartzun handia izan duenez gero, bere eredura eta ispilura beste batzuk sortu dira. “Guk askotan esaten dugu Kafe Antzokia lehen izen berezia zela, eta orain izen arrunta dela” diosku Xabier Monasteriok.

Plateruenako gerenteak, Beñat Gaztel-Urrutiak, antzeko hitzez deskribatu du Durangoko Kafe Antzokia. “Lehenengo Kafe Antzokia sortu zuten Bilbon, euskararen aldeko herri mugimendu baten eskutik. Han jarri ziren oinarriak eta oso argiak dira. Kafe Antzokiak kulturagune euskaldun konprometitua izan behar du, herri bakoitzeko berezitasunetara egokituta jardungo duena. Egitarauari begiratu besterik ez dago zertan gabiltzan jakiteko”.

Plateruena Berbaro Euskara elkartearen ekimenez sortu zen duela zortzi urte, eta egun 900 bazkide ditu. Egituraz kooperatibistak dira hauek ere. “Plateruena kulturaren sustapenerako eraiki genuen” argitu digu Gaztel-Urrutiak, “kulturgintza da gure izateko arrazoia”. Euskarazko herri kulturgintza parte-hartzailea sustatzeko ahaleginetan ari dira Plateruenan. “Euskal komunitatea trinkotzeko elkar ezagutu eta gure nortasunaei osasungarri zaizkion bizipenak elkarbanatzea ezinbestekoa da, bagarela sinesteko. *Etorri, ikusi eta joan* formulatik harago doazen proposamenak dira”.

Kafe antzokiei buruzko iritzi argia du Beñat Gaztel-Urrutiak: “Euskal Herriko kulturgintzaren hezurduran atal bat gara kafe antzokiak, sortzaile eta bestelako eragile askorekin batera. Sortzaileak ezinbestekoak dira, gainerako guztiak premiazkoak gara. Plateruenera etorrita, egitasmo garrantzitsua delakoan gaude. Batetik herri-bizitzatik oso gertu dagoelako, herritarren eta eragileen parte-hartze handia eta zuzena dute. Eta bestetik, nahikoa autonomia daukagulako geure irizpideen arabera jarduteko”.

“Euskal Herriko kulturgintzaren hezurduran atal bat gara kafe antzokiak, sortzaile eta bestelako eragile askorekin batera. Sortzaileak ezinbestekoak dira, gainerako guztiak premiazkoak gara”

Beñat Gaztel-Urrutia, Plateruena

Euskal Kultura noiztik den errentagarria galduta zera erantzun du Plateruenako kideak: “Merkaturatzen den kultur sorkuntza gehiena ez da errentagarria, bereziki euskarazkoa, hartzaile gutxi dituelako”. Aberasgarria bada ordea, begi-bistako arrazoiengatik. “Jendartearentzat aberasgarria den heinean sustatzen ahalegintzen gara. Errentagarria izatea baino, bideragarria izatea da helburua. Horixe dugu eguneroko borroka”.

Debagoienan, Elgetan, bada beste Kafe Antzoki bat, Espaloia. Erreferentea da eskualdean eta beste kafe antzokien filosofiari jarraitzen dio. “Badira zortzi urte pasatxo kultur gunea zabaltu genuela. Plaza berri baten moduan irudikatu genuen orduan, eta plaza ireki hori defendatzen jarraitzen dugu. Izenak ere badakar hori, Espaloian egiten dute topo jendeek, pentsamolde ezberdinetakoak, adin guztietakoak... Eta noski, guk horrela irudikatu dugu euskaltzaleon espazioa eta baita kulturari lotutako ekimen moduan ere”, esplikatu ditu Josu de la Vegak.

Beste ereduetan bezala, lan taldea eta atzean dagoen kultur elkartea funtsezkoa dira Espaloian.

Kalean da abenduko



aizu!

- Euskal Herriko Laborantza Ganbara ezagutzen
- Durangoko Azoka, liburuak eta diskoak baino gehiago
- Maddi Sarasua arin-arin
- Korrika 18 motorrak berotzen
- Papera edota pantaila

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org



loian. Kasu honetan Goibeko kultur elkarteak da antzokiaren zutabe. 250 bazkide ditu. “Jendea erakartzeko gaztainak debalde ematea eraginkorragoa izango litzateke kultura eskaintzea baino”, dio kulturaren errentagarritasunaz. “Proiektu hau jende asko erakarri eta diruz aberastekoa balitz, honez gero enpresari abilen batek hartuko zukeen kafe antzokien frankizia. Gu aberasten gara, bai, baina kulturaz. Lantaldeko kideok asetzen gaituen heinean jarraituko dugu lanean, eta badugu hamargarren urteurrena ospatzeko asmoa”.

Debagoienako jendea erakartzen du batez ere Espaloia Kafe Antzokiak, Bergarakoak, Arrasatekoak. Baina Eibartik eta Elorriotik ere joaten zaie jendea. “Gure ekimenak kultura duina eskaintzen lagundu gura izan du” dio de la Vegak, “kafe antzokiok euskal kulturari ondo ekipatutako aretoa baino zerbait gehiago eskaintzen diogulakoan nago, eta egia esan, askotan eskertzen dute hori sortzaileek”.

Kulturguneak, espazio txikiak, esfortzu handiak

Lasai Kulturgunea duela hilabete eskas zabaldu zuten Bilboko Zazpi Kaleetan. Bertako kide dugu Imanol Martinez, eta baita Altxaporru konpartsako kidea ere. Azken horren ekimenez sortua da kulturgunea. “Aspaldiko asmoa zen”, azaldu digu Martinezek. “Euskara eta kulturgintza bultzatzea, gure oinarritzko irizpidea da berez”. Altxaporruko lagunek ez dute negozio huts bezala ulertzen kulturgunea. “Auzolanean sortutako ekimena da, Bilbo osorako eskaintza kultural osagarria eman nahi duena. Beti ere, euskararen inguruan, eta Euskal Herrian zein Bilbon sortzen diren gauzen leku izan nahi dugu”. Konpartsa berez da kultur elkarteak, eta konpartsak biltzen dituen 40 lagunek parte hartzen dute bertan. “Urtean sei asanblada orokor egiten ditugu, irekiak dira, edozeinek parte har dezan. Hala ere, eguneroko jarduerarako, lantaldeetan gaude banatuta”.

Goazen orain Gasteizera. Bertako Alde zaharrean dago Parral taberna. 1995eko abenduaren 5ean sortu zen. 50eko hamarkadatik ordura arte, erretegia izan zen. Parraleko partaide Txunbik azaldu digunez, “taberna hartatik izena baino ez da mantendu”. “Lau gazte elkartu eta buruan bueltaka geneukan taberna eredua sortzeko aukera izan genuen hemen. Kulturaren presentzia era iraunkor batean ezinbesteko ikusi genuen hasieratik”. Parral lau kidek osatutako sozietate zibila da. Urteen poderioz, Gasteizko bizitza kulturalaren parte bilakatu da. Horren adibide, jada ezagunak diren astearte kulturalak.

Lau bazkideei kulturarekiko arreta aurretik datorkie, dena den: “Gutariko batzuk zenbait bandatan parte hartu izan dugu, eta beste zenbait kolektibo sozio-kulturalak militante gisa kontzertuak antolatu izan dituzte. Astearte kulturalak jada tabernako parte dira, gure menu begetarianoa bezalaxe” dio Txunbik. Parral tabernan era guztietako ekintza kulturalak lekua dute, “beti ere tabernako azpiegiturarekin bat etorrita noski”. Emanaldi musikalak, antzerki obrak, eta oro har ikus-entzunezko ekintzak izaten dira batez ere. “Formatua interpreteak aukeratzen du beti. Big Band Berriko 21 musikari batera eskenatokian sartu izan dira eta estu xamar ibili badira ere, emanaldi polita eman zuten”. Gasteizko bizitza kulturean erabat murgilduta daude Parral tabernako lagunak. “Gasteizko panorama kulturalaren eskaintza gaur egun oso zabala da eta praktikoki astero asetzen dugu gure kultur egarria. Honekin batera, nabarmendu nahi genuke gure moduko aretoek esfortzu handia egin behar izaten dugula urtebeteko programazioa inolako laguntzarik gabe mantentzeko. Era berean udal agenda kulturalari ekarpen itzela egiten diogu”.

Gasteiztik Iruñera

Iruñeko Txantrea auzoan, berriz, Akelarre kulturgunea dugu. Akelarrek taberna moduan 17 urte baino gehiago darama irekita, baina duela 7 urte Kultur Elkartek izatera pasatu zen. “Elkartearen helburuak kultura sustatzea eta hedatzea da. Kulturaren hedapen libre, alegia” azaldu digu Mikel Goñik, Akelarreko kideak. 40 bazkidek osatzen dute elkarteak. “Funtzionamenduari dagokionez, zuzendaritza modu asanblearioan egiten dela. 15 egunetan behin biltzen gara, eta bilerak irekia da, hau da, bazkidea den edonor bertaratu daiteke”. Elkarte denetik 350tik gora ekitaldi antolatu dira kulturgune horretan. “Guretzat kultura balio erantsia da, gure identitatea delako”, nabarmendu digu Goñik. ■



«Egon behar den lekuetan egoten saiatzen naiz, hori da militantzia»

Luis Tosar aktore galziarrak (Lugo, 1971) dagoeneko Donostiako Zinemaldiko Maskorra (*Te doy mis ojos*) eta Espainiako hiru Goya sari (*Los lunes al sol*, *Te doy mis ojos*, *Celda 211*) lortu ditu. Produktore lanetan ere badabil eta Di Elas musika taldeko kide da. Kamera aurrean nahiz atzean, arazo sozialen inguruko gogoeta du hizpide.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

FARC gerrillaren eta Kolonbiako Gobernuaren arteko Bake Elkarrizketekin batera estreinatu da *Operación E*. Kolonbiako zein errealtate islatu duzue filmean?

Gatazkaren zati jakin bati heldu diogu, benetako gertakizun batean oinarrituta: FARCen gatibu zen Clara Rojasek semea izan zuen eta nekazari familia bati eman zioten umea, zaintzeko. Familia horren historia kontatu dugu, umea aurrera ateratzeko bi urtetan bizitakoa. Helburua ez da izan Kolonbiako gatazka armatuari buruzko analisisia egitea.

Baina testuinguru hori agerikoa da pelikulan. Halako gatazkez aritzean, arriskua izaten da pertsonaia estereotipatuak egitea, gaiztoen eta onen arteko gatazka aurkeztea...


Bai, gatazka armatu bati buruz istorioa kontatzea konplexua da beti, faktore askok kutsatuta daude alde guztiak, baina gure historia protagonistaren ikuspegitik dago kontatua, eta protagonistarentzat alde guztiak dira gaiztoak: gatazkek desplazatu dituen lau milioi biktima horietako bat da, paramilitarrek desplazatuak, edo FARCEk, edo armadak... Anonimatuan hiri handietako auzo txiroetan bizi diren horiek guztiak dira, azkenean, gatazka sufritzen dutenak eta inork kontuan hartzen ez dituenak.

Aritz Moreno donostiarrak zuzendutako *Cólera* film laburrean hartu duzu parte, Nafarroan errodatua. Urte bukaeran estreinatzea da asmoa, zer moduzko esperientzia izan da?

Ia dena sekuentzia planoan dago grabatua [etenik gabe], komiki kutsuarekin, eta sakon-ean intolerantziatz hitz egiten du. Pertsona



LUIS ALMANSA



“Sozialki justuak iruditzen zaizkidan gauzak defendatu ditudala esango nuke, asmoa ez da inor erasotzea, nire pentsamenduarekin koherentea izatea baizik”. Argazkietan, ezker-eskuin, antzeztu dituen hainbat rol: langabetuarena *Los lunes al sol* filmean; tratu txar emalea *Te doy mis ojos* pelikulan; “Malamadre” presoa *Celda 211* lanean; eta nekazari kolonbiarra, estreinatu berri den *Operación E* luzean.

jakin bat baztertu behar dela erabaki eta denak elkartzen dira haren aurka. Gaur egungo akats handietakoa da: batzuetan, erraza da kolektibo oso bati sinetsaraztea norbait gaiztoa dela edo zerbait txarra ordezkatzeko duela, eta zigortu egiten dugu denen artean, egoeraren benetako analisia egin aurretik.

Krisia eta etxebizitzaren espekulazioa du ardatz zure azken proiektuak (*Los fenómenos*). Gai sozialak jorratu ohi dituzu pantaila handian.

Istorioak kontatzen diru asko gastatzen da, erantzukizun hori dugu, eta saiatzeko moduko gai latzak bizi baititugu egunero.

Zinemak balio du orduan kontzientziak astintzeko?

Gogoetarako bide eman dezake behintzat. Aretoan ilunpetan, ordubete baino gehiago hausnartu dezake ikusleak pantailan duen gaiak, hedabideetan agertzen diren gaiak izan arren sarri ez diegulako eguneroko erritmo bizian behar duten arreta eskaintzen. Segituan iraungitzen da dena, zabaltzen diren abiadura berean desagertzen dira albisteak, eta gaietan sakontzeko aukera handiagoa ematen du zinemak. Ikuslearekin enpatizatu dezaketen pertsonaiak eraikitzen ditugu eta emozionalki harrapatzen badugu, mezuak edo gaiak eragin handiagoa izango du publikoarengan, barrurago iritsiko zaio.

Eta zuk nola enpatizatu duzu zure pertsonaiekin, tratu txar emalearen edo hiltzailearen rola antzeztu duzunean, adibidez?

Hori da gure ofizioa. Ondorio guztiekin sartzeko zara pertsonaiaren larruazalean, ez duzu epaitzen eta ahalik eta sinetsgarrien helarazi behar diozu ikusleari. Ez du esan nahi pertsonaiaren printzipioekin bat egiten duzunik,

baina azkenerraino defendatu behar duzu, eta horretan datza interpretazioaren aberastasuna. Ideia, mezu edo emozio baten zerbitzura dagoen tresna gara gu, eta pertsonalki agian desatsegina da gaiztoaren rola antzezteko, baina profesionalki oso dibertigarria izan daiteke. Publikoaren esku dago pertsonaia gorrotatzea edo atzean dituen motibazioak ulertzea edo dena delakoa. Gogoeta horiez mintzo nintzen aurreko erantzunean, albiste bat ikusten dugunean zaila zaigulako hausnarketa maila horietara iristea, gertakizun baten atzean dauden zirkunstantziak, ezaugarriak, testuingurua... ematea falta delako maiz.

“Istorioak kontatzen diru asko gastatzen da, erantzukizun hori dugu, eta saiatzeko moduko gai latzak bizi baititugu egunero.”

Pantailatik kanpo ere, gizarte gaiei lotutako aldarrikapen ugaritan hartu duzu parte. Tartean, Prestige itsasontziak eragindako hondamendiaren salaketan. Hamar urte bete ditu aurreko erasoak eta epaiketari hasi berri dute.

Tragedia handia izan zen eta une berezia, gutxitan gertatzen delako herri guztia bat eginda kalera ateratzea hain modu garbian protesta egitera eta erantzukizunak eskatzera. Egia da denborarekin mugimendua indarra galtzen joan zela, eta oraingo epaiketa itxurakeria da, paktaturiko akordioa, beste ezer baino gehiago. Ez dirudi erantzukizunak eskatuko direnik eta beharrezkoa izango da berriz ere mobilizatzea, baina zaila izango da, hoztu egin delako gaia.

Galiziako BNG alderdiko zerrendetan aurkeztu zinen garai batean, baina politikatik aldentzea erabaki zenuen gero. Politikaz nazkatuta bukatu al zenuen?

Bai, konturatu nintzen garrantzitsua dela jakitea non gauden bakoitza, zein den gure arloa eta non diren baliagarriak egin ditzakegun ekarpenak. Eta politikan ikusi nuen ez naizela baliagarria eta ez nagoela eroso. Marketina oso inportantea da mundu horretan, alderdi barruan dauden joera guztiak asebetetze nahi dira... Orain, egon behar den lekuan egoten saiatzen naiz,



LUIS TOSAR • ERDIKO KAIERA

ko, bai niretzat eta bai erreferentetzat zaituztenentzat, erreferenteak izatea beti delako arriskutsua. Zerbaitetan edo norbaitengan itsu-itsuan sinestea arriskutsua da, idealizazioak ez dira onak eta pentsamendu kritikoak aberasten gaitu, aldeko eta kontrako ezaugarriak aztertu eta ematen ditugun urratsak modu kontzientean emateak. Ni neu dena erlatibizatzen saiatzen naiz, zuhurra izaten, nahiz eta beti ez dudana lortzen eta batzuetan ez dut mezua nahi bezala helarazten, kontuz ibili beharra dago beti. Orokorrean, sozialki justuak iruditzen zaizkidan gauzak defendatu ditudala esango nuke, eta nire asmoa ez da inor erasotzea, nire pentsamenduarekin koherentea izatea baizik.

ZircoZine ekoiztetzeko produktoreetako bat zara. Zein da zuen filosofia?

Inguruko jendearekin ateratzen ditugu aurrera proiektuak, konfiantzazko jendearekin, Galiziako istorioak kontatzeko eta bertako talentua erakusteko asmoz. Horrez gain, normalean zirkuitu komertzialetik at dauden pelikulak dira eta horregatik handiagoa da ahalegina, beste produktora batzuekin elkarlanean aritzen gara, proiektu ausartagoi aukera emateko: *Los fenómenos*, *18 comidas*, *Crebinsky*... Ekoiztetxe txikia gara eta gure helburua ez da negozioa egitea, film txiki eta pertsonalen aldeko apustua egitea baizik. Horrek inplikazio enpresarialetik harago joatea eskatzen du, ez direlako ekonomikoki pelikula errentagarriak, baina aldi berean egin beharreko pelikulak dira, kontatu beharreko istorioak.

Badirudi krisi garaian kultura izan ohi dela gaztigatuenetakoa, ez al da sektore estrategikoa?

Alde batetik ulertu dezaket herritarrak kontu garrantzitsuagoetan izatea burua, etxetik ez kaleratzean adibidez, baina egia da baita ere kulturaren industria oso industria indartsua dela, lanpostu asko mugitzen dituen eta hori ez da beti garrantzitasunez kontatzen. Familia ugari bizi da kulturatik, tartean zinematik, eta aintzat hartzeko sektorea izan behar luke. Gure kasuan, orain hasiko gara ikusten BEZaren igoerak nola eragingo dion aurretik jada oso gaizki zegoen Espainiako ekoizpen zinematografikoari. Produktorak ixten ari dira, BEZa igotzeko erabakiekin batera ez dagoelako beste aldeko politikarik, inbertitzaile pribatuak erakartzeko pizgarri fiskalak adibidez; ez dugu inongo babesik eta AEBetako industriak du distribuzioaren monopolioa. ■



hori da militantzia, zarata egitea eta ahotsik ez duten foroei ahotsa ematea, ahal den moduan. Nahiko nuke mutur-joka ez amaitzea eta ez dut hori babestuko, baina jendea oso nekatuta dago eta ez naute harritzen gerta daitezkeen jarrera biolentoek, politikariak herriaren iritziaekin bat ez datozen erabakiak ari baitira hartzen. Izugarria da hori, herriak berak hor jarri dituen pertsonak direlako. Gizarte mugimendua da munduaren norabidea gidatu beharko lukeena, baina zoritxarrez ez da hala.

Xarmenta Saria jaso zenuen 2005ean, galizieraren aldeko defentsa egiteagatik. Zer da zuretzat galiziera?

Nire lurra, nire ama da, gurasoen hizkuntza, kultura horretan hazi naiz. Galiziar guztion ezaugarria da, baina zenbait sektorek oso gaizki tratatu dute, zehazki PPK baztertu egin du, erabakigarriak ziren uneetan. Orain une horietako batean gaude: pixka bat aurrera egitea lortu genuen eta beste behin, harriak bota dizkiote gainera. Ama hizkuntza bere lekua egiten ari zen hainbat eremutan, bereziki kultur arloan, baina hezkuntzan galiziera inposatzen dela eta hala-ko erasoekin hasi dira...

Aktore ezaguna eta errespetatua izanik, nola daramazu jendeak aldarrikapen sozialen, hizkuntza baten, herri baten... erreferentetzat hartzen zaituenean?

Tentuz eta ahalik eta modu zentzudunenean gestionatzen saiatzen naiz, arriskutsua dela-

“Zirkuitu komertzialetik at dauden proiektuak ateratzen ditugu aurrera produktorari; ez dira errentagarriak, baina egin beharreko filmak dira”

Galiziarrek eta PP

“Ulertzen zaila da Galizia, baina beste edozein leku bezala; zuek ere [EAEn] zenbat urtez izan duzue EAJ gobernatzeko? Nire ustez, Feijóo azkarra izan da hauteskundeak aurreratuta, Madrilgo Gobernuaren neurriek ez baitiote inongo mesederik egiten eta beste urtebeteko epean jarraitzaileak galdu ditzake. Alternatiba Galega de Esquerdarekin ikusi da, Beirasek eserleku asko lortu ditu hilabete eta erdiko kanpainarekin eta alternatiba indartsua da Galiziarako. Badirudi galiziarrek DNAn daramatela PP, baina Beiras bezalako lider indartsua agertzen denean, aldaketarako nahia dagoela antzematen da, alternatiba badago, eta ziur naiz noizbait lortuko dugula”.



Euskal Herria ezagutuz

TOLOSA

Larunbateroko azokan usaintzen da bailararen esentzia

Urtean hamaika aitzakia duzu Tolosa aldera hurbiltzeko. Hona hemen bat, ez da ikusgarriena baina bai egiatiena, herri prestu honen izateari taxua hartu nahi badiozu.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |



DANI BLANCO

TOLOSARRAK, herria famatu dezan eskatuta, bertako inauteria aipatuko dizu lehenengo eta behin, Ostegun Gizona noski, igande goizeko Dianaren lehertzea, eta Astelenita, edo Asteartita. Frankismoak ere isildu ahal izan ez zuen inauteria da gurea, beste inon ez bezalakoa, Kortatuk, jada aspalditxo, abesti sonatu batean deskubritu zuena, *pero qué coño haces tú sin disfrazar...*

Alter egoak aparteki askatzera gonbidatzen duen inauteri horretatik asko du nire gaztetako Tolosak. Eta Bonberenearen aitzindari izandako gaztetxetik, eta nazioarteko abesbatzen oihartzunetik, txotxongilo eta magia jaialdietatik, Sanjoanetako Bordon dantzatik... Egun go nire Tolosak, nostalgiaren galbaheak itzultzen didan nire sorterriak, aldiz, larunbateroko azoka ederresten dit ospakizun horien guztien gainetik.

Bere xumean handi izan da beti hitzordua. Parranda eroen garaian ere, lagunarteko planean beratzea beste helbururik ez genuenean ere, saihestezina zitzaigun. Egunkaria besapean hartu eta Zerkausian amari gazta zatia erosita heltzen ginen etxera goizean goiz, ostiraleko ezusteko gau-pasak sorraraz ziezaiokeen ozpindu aldia gozatuko zuelakoan. Azken sosak Berdura plazan eskuratutako landare eder batean gastatuta ere bai noizbait, kezken ordainetarako gazta zatia baino sinbolikoagorik behar izatea irudituta. Orduan aise bizi ginen telefono eramangarririk gabe.

Larunbata *peri eguna* da izan, tolosarrentzat. Txikitatik barneratzen den ikasgaia da, bi eta bi lau direla



G.U.G.



G.U.G.



G.U.G.

AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com

 **AQUARIUM**

 **ellauri**
HOTELA

KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu



Tolosako Kultur etxea eta Triangulua. Atzean, Uzturre mendia.

bezala. Grabitatearen antzean erakartzen nau geroztik, bere esentzia jendetsuan imantzen, aspaldian urrutitxo eta alderrai bizi izanagatik ere. Gaurkoan ezingo diot barneko alerta horri ihes egin. Goizeko zortziak. Segidan abiatuz gero, bederratzia laurden gutxietarako han nagoke. Ez dut aitzakiarik. Banoa.

Autoa lurpean utzita –trena hartzeko modu errazik ez dut–, Justizia jauregiak osatzen duen plazara atera naiz parkingeko eskaileratan gora. Kafetegi zabaldu berria dakusat eskuinaldeko kantoian, David Pradosek dotore diseinatu: kristalera zabalak aldenik alde, espaloietako baldosak paretetan gora, egurra eta porlanaren konbinaketa. Kafesnea eta kruasana esku banatan hartuta, bazterreko sofa beltzean eseri naiz, Artxibategi Historikoaren atzealdeari begira, patxadan. Aurki jendez beteko da ingurua. Ondoko zahar etxeko biztanleak ekarriko dituzte aperitif hartzera, bisitan etorriko zaizkien senideek gonbidatuta gehienak.

Gosari legea egin ondoren, Beotibar kalean behera noa Euskal Herria plazara. Janari usain gozoa

Azoka bereziak

Otsaila

- Zuhaitzen azoka.

Martxoa

- Biga enkantea.

Maiatza

- Nafarroako eta Nafarroa Behereko produktuen azoka.

Ekaina

- Artisautza azoka.
- San Joanetako azoka.

Iraila

- Garagardo azoka. Garagardo dastaketa eta kultur ekitaldiak.

Urria

- Tolosa Goxua. Gozogintza produktuak.

Azaroa

- Artisautza azoka.
- Tolosako Babarrunaren Astea.

Abendua

- Gabonetako azoka.

dago bazterretan, salda eta haragi egosiarena, lehen kolpean. Odolkiak eta mondejuak ere etorri zaiz-

kit akordura. Laster batean milaka pintxo eta plater ikusgarri apainduko dituzte herri osoko barrak.

Topic txotxongilo zentroa inguratzen duen azoka ikusiko dut lehenik, larunbatetan ohikoak diren hiruretarik bat. Postu gehienak plaza hesitzen duten etxeetako arkupean jarrita daude. Jantziak eta osagarriak eskaintzen dituzte saltzaile gehienek, azpiko arropak, neguko tixertak, etxeko bata, trikotak, soinekoak eta berokiak. Baita mahoizko praka-jakak eta lanabesak ere, betiko kantoian. Plazaren erdian, kanpoko fruta-barazkiak, olibak, kontserbak eta turroiak, aukeran. Harago larruzko poltsak, modu onean.

Zerbaiti begira geldituz gero, agudo botako dizute amua hemen. Betidaniko ezagunari bezala, jario errazean zuzenduko zaizu postuaren jabea, eguraldiaz, salgai duen generoaren kalitateaz, etxeko beharrez, zernahiz mintzo. Ez da eroslea limurtzeko teknika hutsa. Hemengo legea da. Eta dibertigarria da.

Azpiko kamiseta lodiak eta mahoizko praka eskuetan daramatzadala, Euskal Herria plazako



DANI BLANCO

Oria ibaia. Eskuinean, Zerkausia. Bertako nekazarien postuak hartzen ditu larunbatero.

azoka utzi eta Rondilla kalera atera naiz, edo Pablo Gorosabelera, herriko arteriarik ezagunenera. Jendea nonahi, pasean, erakusleihoei begia luzatuta, espaloia-aren erdian geldirik, berriketan, traban, erosketa poltsa gobernatu nahian, semaforoa gorritu zain, eztabaidan, euskaraz, hartu nauen Hendaian ez bezala. Arnasa hartu dut sakon. Tolosaldearen esentzia usnatzen ari naiz.

Garaian garaikoa

Aroztegieta kalean gora gero, Beti Alai, Raku edota Orbela tabernak utzi ditut atzean. Trianguloa ere nire eskuinetara lagako dut. Azoka berezirik balitz, Babarrunarena bezalakorik kasura, mukuru beteta legoke garai honetarako. Pauso bat bide besterik ez, Zerkausira heltzeko. Bertako produktuen merkatua egiten da hemen. Ederra da agerikoa, festa koloretsu baten parekoa.

Hurbiltzen hasi orduko senti liteke baserritarren azoka deitu izan dugun honen funtsa. Bailarako erakustokirik behinenean nagoela iruditzen zait, garaian garaiko mozkinen paradisu. Azak, azaloreak, brokoliak, porruak, tamaina eta mota guztietako kuiak, babak, babarrun beltzak, mizpirak, gaztainak, intxaurrak, sagarrak, sagarrez eginitako dultzeak, mermeladak, eztiak, opilak, ogiak, hango eta hemengo gaztak, uso eta eper ehizatuak... Ikusle gehien biltzen duen mahaia-aren aurrean ondoak daude ugari, mordoan, 30 eurotan kilo. Nire ondoko emakumeak, ni bezain harrituta, marmarrean ari dira: "Hemengoak al ditun horiek?!", "zera izango ditun hemengoak, Soriakoak behar ditun", "aizan, garesti nolanahi ere, 30 euro?!"...

Azoken itzulua osatzeko, Zerkausia utzi eta Alde Zaharreko karrika

estuetan barrena egin dut, hemengo betiko denda dotoreei begira, jantzi eta oinetakoen eskaintza zabalean saltoka helduko naiz Berdura plaza-raino. Ez naiz balkoian landare apain-garriak zaindu zale, ez dut barazki-txoak aldatzeko tokirik, perrexila jartzeko ontzi kaxkarren bat ez bada, baina plazer ematen dio bistari krista-lezko estalpe honen argitan ageri den estanpa koloretsuak.

Kalean gora noa orain. Kosmetika iragarki ospetsuak dioen bezala ondo merezia dudalako, ezin ukatuko diot kutixia ene buruari. Gorrotxategin Xaxuak erosi—bertatik bertara dago gozotegia— eta San Frantzisko aldera joko dut. Trianguloan gora noala, Uzturre mendiaren itzala senti dezaket bizkarrean. Atzera begiratu dut disimulurik gabe. Bai ederra gure Tolosa. Larunbatez. ■



Balerdi Balerdi + Giorgio Bassmatti

Donostia · Doka kafe antzokia

Abenduak 14 ostirala

Ateak zabalik 20:30etan · (5€)

21:00 G. Bassmatti.

22:00 Balerdi Balerdi

Henduen literatura | POESIA

Urtebetetze festa
Castillo Suarez
Elkar, 2012.



Izatea bera

CASTILLO SUAREZEK lehenik eta behin Leire Bilbaori eskertzen dio hegoak eman izana, eta Garazi Kamiori “lurreratze pistan” zain egon izana. Ulertzen dut nik izango dela bihoz-kadetari sinesteko esan diola Ondarroako poetak, eta bihozkadok orrazten, ordenatzen, fintzen lagundu diola Kamiok. Eta eskertzen ondoren Yolanda Castañoren zita batekin hasten da liburua, arrainen gainekoa. Eta gero irakurlea sartzen du Castillok mundu eder triste batera, esaldi bakar batean bilduz bere asmoa: “Gure historia kontatzen diogu maite dugun jendearekin, baina *maite zaitut* esanda nahi-koa da gehienetan”.

Hunkiberatasuna, esateko gogo... mimoz eta txeraz idatzita dago liburua, *maite zaitut* bat da poetaren ofizioari. *Urtebetetze festa* honetan ametsa naturaltasunez nahasten da errealitatearekin, eta poesia hurreratzen da narrazio lirikaz puztura, eta mugarik gabeko errealismo magiko horrek lortzen du giro berezi bat, zalantza existentzialez eta amodio galdez bete. Maitasun femenino bat da Castilloren, ezinezkoa, platonikoa eta arean itogarria, baina poema sorta bakoitzaren ostean dauden ahapaldi biko zita laburrek arnasa hartzeko eta hausnartzeko balio dute: “Nire beldurrik handiena da ez zarela zu oraingoa izango; ez naizela ni bes-telakoa bilakatuko”.

Egundoko Castillo Suarez onena iruditu zait, benetan eta gordin idatzi duelako atseginaren eta minaren mugan, negarrez eta barreka. Tonua eta haria aurkitu dituela dirudi, ze lehenagoko zenbait lanetan intentsitateak behera egin ohi bazuen eta gauza larri esan nahi izaten bazituen batera, *Urtebetetze festa* da elipsiaren eta denboraren joko landuago bat, irudimena dominatzeko ahalegin bat. Eta horrek ematen dio hain zuzen liberekin poetiko gehiago, zehaztasun emotibo handiagoa. Batzuetan ahotsak nahasten dira, beste batzuetan hirugarren pertsonak bihurtzen dira lehen pertsonaren bigarrenak, baina joritasun harmoniadun bat da, iluna, pobrea eta argia, mitologia ezohiko batean oinarritzen dena: bikini bustiak, eguneroko bizitza, laztanen hondarrak, desengainua eta serpentinak.

Osagai guztiok eta luma sendoarekin eraiki du istorio bat mila aldiz kontatua, alegia, izan nahiko genukeenaren istorioa. Historia pertsonal hori jada ez da barruak husteko edo idazteagatik idazteko, baizik eta gure baitan miazteko, gauza funtsezkoen bila. Idazleak ahotsa aurkitzen duenean, irakurleok poztu egiten gara. Zortetsuak garelako pentsatzen dugu. ■

Igor Estankona



Independentziaren paperetan galdua

EUSKAL HERRIA eta bere independentzia gaur egun nola ikusten dituen kontatzen digu egileak. Aristiren ustez, estrategia eta taktika argiak behar dira independentziarako eta euskaldunok ez ditugu. Argi dio, herrien askatasuna ukatzen duten neurrian, Espainia eta Frantzia inperialistak dira, ez dira demokratikoak, eta biolentzia eta era guztietako amarruak erabili dituzte —eta erabiltzen dituzte— Euskal Herria menderatzeko. Edo Espainiak irabazten du edo Euskal Herriak, ez dago besterik.

Alderdi independentistak gogor kritikatu dituzte, besteak beste Euskal Herria menperatzeko eratuako sisteman parte hartzen dutelako: “Herri bezala nahi badugu funtzionatu, hasi beharko dugu herria zatitzen duten hauteskundeak uko egiten”. Bizi dugun krisi ekonomikoak abagune egokia eskaintzen du independentziarantz urrats garrantzitsuak egiteko. Independentismoak, erreferentzia historiko garrantzitsuak dituela azpimarratzen du: Nafarroako Erresuma, orduko “euskal popularen subjektu politikoa”. “Denok gara euskaldunak, lurralde guztietakoak, baina Nafar Estatukoak gara”. Nafar Estatua konkistatu izan zela dio, bahitua, eta ‘deboluzioaren’ ideia berreskuratu behar dela.

Prozesu honetan hitzei eta ideiei duten garrantzia emateko, Ideia Politikoen Laborategia eta Independentziari Buruzko Institutua sortzea proposatzen du, independentziaren hiztegia egitea, intsumisio linguistikoa praktikatzeko. Liburuak gordintasunez azaltzen du nazioen arteko borrokan irabazle eta gal-tzaileek nola diharduten, eta irabazle izateko aukaria gailendu behar dela.

Liburuak balio izan dit independentziaren bueltan geldituko bat egin eta hainbat egoera eta kontzepturen gainean gogoeta egiteko. Ez dit balio izan, ez dit aztarnarik eskaini, egungo Euskal Herrian bestelako prozesu independentistarik irudikatzeke, ez euskal lurraldeak batze aldera, ez independentziaren bidean giltzarri izan behar duen gutxiengo eta gehiengoaren indar harremanen eraldaketan sakontze aldera. ■

Xabier Letona



Independentziaren paperak.
Pako Aristi
Elkar, 2012.

Xirimiri. Oskarbi
Elkar, 2012.



Oskarbi

EURI GOZOA ari du. Xirimiria. Oskarbiren CD berria entzuteko une aproposa. *Xirimiri*. Lehenengo konpasak entzuten hasi orduko haurtzaroan aditzen nituen doinuen eta ahotsen arrastoak berreskuratzen hasi naiz, eta badatoz, tantaka-tantaka, bokal harmoniez beteriko melodiak oroimena bustitzera. Eta banoa, astiro-astiro euskal folkaren oinarrietara. Oskarbiren jatorrietara.

Ibilbide luzea egin du 1966tik hona Ez dok hamairu mugimenduko kide izan zen taldeak —eta aktibo dirauen euskal talderik beterranoenak—, ibilbide horren ardatz nagusiari heldu dio kaleratu berri duen lan berrian. Bere garaian, aparteko ahots taldea osatu zuen eta gaur egun ere bikain mantentzen du jatorrizko izaera hori.

Aberastasun instrumental zabala eta, batez ere, ahots joko gozoz baliatzen dira bakarka, bikotean, hirukotean nahiz koro gisa aritzeko.

Herri kantak, inoiz grabatu gabeko pieza tradizionalak eta euren sormeneko konposizio eta letrak uztartzen dituzte Donostiako Elkar estudioetan grabatutako disko honetan. Hiru poema berri entzun ditzakegu diskoan. Bata, Oskarbiren lanetan ohikoa den Bitoriano Gandiagarena, *Kuku* abestia. Beste bat, J.L. Trekurena, CDari izenburua eman dion *Xirimiri* kanta. Eta hirugarrena, Xabier Leterena, *Gabon bitzak*.

Uzta berritik aipatzekoak dira ere, doinu alaiak dakartzan *Andre gaztia jaja!* edo Iparraldeko *Firlan girun* abesti herrikoiak.



Ostalierra kantak ere badu xarma, bai doinuari dagokionez, baita ardo saltzailearen eta eroslearen arteko elkarrizketari dagokionez ere.

Horiekin batera, XV. mendeko bi kanta berreskuratutakoak. Erdi Aroko kantagintzaren oihartzun dira Zuberoako *Alarguntsa* eta *Lasturko Miliaren eresia* kantak. Horiek guztiek halako molde berezi bat ematen diote musika talde bikain honen abestiei.

Diskoaren azalarekin beren jatorrietara egin dute itzulua. Beren lehenengo diskoaren esentzia berreskuratutako nahi izan dute, Jorge Oteiza eskultoreak hiru zirkuluz osatutako irudiari euri tantak gehituz eta modu horretan, *Xirimiriaren irudia* antzeratuz.

Oskarbi taldeak herri kantutegia eta euskal poesia uztartuz jarraitu du orain arte, eta bide horri eutsiz, euskal folkaren eredurik argienetakoa dela egiaztatzen da. ■

Olatz Korta



CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com


iRuNaZaRRa

Taberna • JateXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

Hitz gezidunak

HITZORDU GERNUA		HAMARREK OSATUA PERTSONALA- REN IZENA		LETRA IZENA (PLURALEAN)		GOROTZA SASOIRA HELDU		MUGATUTA- KO DENBORA BITARTE SARRERA		ATSEDE- GARAI PERTSONALA- REN ABIZENA		GOGORATU ONDASUNEN MULTZO
				PAPER MOTA TALIOAREN SINBOLOA								
DANBOR AFRIKARRA OSO ZABAL						SETATSU TENPERA- TURA						
								ZUHAITZ MOTA OINARRIZKO EDARI				
ZIKIN, LOHI	IRIDIOA HAMAR GEHI SEI			 JUDIT FERNANDEZ					UTIKAN! KIROL SAILKAPENA			
								GAROA, IRATZEA MAINDIREA			LORIA	
AREAGO SILABA HINDUISTA												
		KILOA ZERO, EZEREZ						AURRIZKI: KONTRAKO- TASUNA ARRAIN MOTA				
AURPEGIA- REN ATAL MAIZ, SARRITAN				TOKI HONETARA BAKARRA		DAGO EGIPTOKO JAINKOA		AZKEN LETRA MODU ATZIZKIA		KENKETAREN SINBOLOA GALDE- TZAILE		
			BOTATZERA BEHARTU HAMAIKA ERROMATAR ZENBAKIZ								TONA OMEN	
PERTSO- NAIAREN SORTERRIA IKUSTERA JOAN						OHOREZ URANIA						
							GEHIEGI- KERIAK EGITEN DIREN JAIA					

Kike Amonarriren umorea

Mozkorra autobusean

Morroi hau total eginda sartu da Donostiatik Andoainera doan azken autobusean. Sartu orduko, erdiko korridoreko barrari heldu eta garrasika hasi da:

– Atzealdeko guztiak zakil hutsak zarete, erdialdekoak nazkagarri kuadrilla, eta aurrean zaudetenak alu zikinak!

Hori entzundakoan, gidariak bat-batean balaztatu,

autobusa gelditu, mozkorra lepazintzurretik heldu eta:

– Orain, ausartuko al haiz esatera zeintzuk diren zakilak, zeintzuk nazkagarriak eta zeintzuk aluak? Errepika ezak orain, potroak baldin badituk!

Eta mozkorrak:

– Eta nik zer zekiat!!! Horrelako balaztada eman eta gero, denak nahastuta zeudek!



Soluzioa

O	E	R	O	S	O	I	T	A	R	A	N	T	E	Z	A
O	P	E	M	O	R	K	I	U	R	I	A	I	Z	A	R
E	A	P	E	M	O	R	K	I	U	R	I	A	I	Z	A
K	A	P	E	M	O	R	K	I	U	R	I	A	I	Z	A
I	X	A	M	O	T	E									
H	A	M	T	A	L	R	E	R	E	K	O	H	O	B	O
Z	I	A	B	A	L	R	E	R	E	K	O	H	O	B	O
P	I	T	A	B	A	L	R	E	R	E	K	O	H	O	B



Libe Aranburu, Martxelo Rubio, Joxemari Carrere, Ugaitz Alegria, Mañu Elizondo eta Gabriel Ocina aktoreek taularatzen dute *Su txikian*.

Ur handitan

HAINBAT ESTREINALDI pilatu dira denbora laburrean antzerki zalearen agendan: *Soinujolearen semea* ekoizpen handiko erronka izan da, narrazio lan bat abiapuntu duena; *Publikoari gorroto* obrak teatroa bera izan du hizpide estetika jostagarri bezain bortitzean, aspaldiko partez euskal idazle batek paperean sortutako teatro-lan bat taularatuta nolabaiteko justizia poetikoa eginez; Ttak teatroaren *Ta oain ze?* lanak aurrekontu txikiagoarekin era guztietako zirkuituetan kalitatezko lanak egin daitezkeela ekarri digu gogora, aktore lanetik sortutako testu batekin; *Hitzak*-ek genero bortizkeriaren gaia ekarri digu berriki hizpidera, molde sinboliko eta poetikoan; bestelakoa da, berriz, *Su txikian* lanaren kasua, zeinean hainbat testu izan dituzten abiapuntu, saiakeraren arlokoak oraingo honetan.

Beraz, ur handitan dabilkigu euskal teatroa azkenaldian, zentzu onean. Arriskatu beharra dagoelako. Eskaintza anitzak sor dezakeelako soilik ikuslego kriteriodun bat. Aipatutako lanek teatro mota ezberdinak ekartzen dituzte gogora, eta hori da agian euskal zalegoaren parte batek sarritan pentsatu eta gutxiegitan adierazi duena: eus-

karaz teatro mota ezberdinak ikus-teko aukeraren beharra. Zentzu horretan proposamen berri bat dakarkigu Glu-Gluk ekoiztutako *Su txikian* lanak ere, beste estilo batera gerturatuz zeharo, teatro dokumentalaren koordinatuetan kokatuz batez ere. Azpeitiko antzerki jardunaldietan estreinatu zen; aretoaren ezaugarri tekniko eskasak kontra bazituzten ere gogotsu atera ziren zazpi aktoreak oholtzara. Formatu txikiko bertsioa eskainia zuten egun batzuk lehenago herrian bertan.

Imanol Muruaren eta Jesus Egi-gurenen liburuak izan dituzte oinarri, besteak beste. Asko da, beraz, denbora laburrean kontatu beharrekoa, publikoari laburtu beharreko kronologia eta entziklopediarik gabeko historia. Apenas egongo da sentimendurako eta emoziorako tarterik, ez bada norberak eman lezakeena; hain dira ugariak herri honek burutik aburura izan dituen bizipen pertsonal eta kolektiboak.

Aktore batzuen azalean berehala ezagutuko ditugu etxeko telebista baino ikusiagoak ditugun politikari euskaldunak, hainbat elementuk lagunduta: proiektzioetan irakurri beharreko testuek eta albistegi

zatiek informazio ugari helaraziko dute, Mursegoren musikak eta bes-telako soinuek eta audioek ekarpen handia egingo diote akzioari. Ikus-entzunezko dokumental bat ikus-tearen gisakoa izan daiteke antzez-lana, eta ikuslea ere era horretan posizionatu beharko da agian: 'urruntzearen' teknika gogoan, ari-keta arrazionala egin beharko du, jasotako informazioaren aurrean posizio bat hartuta.

Ur handitan sartu dira *Su txikian*-eko egileak, gaiari eta antzerki motari dagokionez. Zentzu horretan eztabaidea da agertutako ausardia, eta Galder Perez zuzendariak proiektua aurrera ateratzeko erakutsi duen kemena. Ondo datorkigu gogoratzeko antzerki mota ezberdinak behar ditugula, Euskal Herriaren historiari erreparatuta teatro dokumentalak ere leku bat izan lezakeela. Hortik aurrera ikusleonek esku dago iritzia edukitzea eta ematea, antzerkiari buruz, agertutako edukiei buruz. Teatroaren itsaso honetan behar ditugu marinelak, baina ikusleoi dagokigu igeri egitea. Edo itotzea. Edo arrain bilakatzea. ■

Oier Guillan



Oharkabeen joaten utzi behar ez diren zazpi sintoma

EGIA DA batzuetan aparteko arrazoirik gabe kezkatzen garela, eta ez dagoela medikuarengana zertan joan gorputzak aldaketaren bat duen bakoitzean. Baina egia da, era berean, badirela seinale batzuk, garaiz hartuta serioa gerta litekeen trastorno baten irtenbide egokirako modua ematen dutenak. Biztanleriaren %60k aparteko premia edo beharrik gabe jotzen du larrialdi zerbitzuetara. Horregatik seinale batzuk ezagutzen jakitea oso baliagarria izan daiteke, seinale horiek adieraz dezaketen gaitzari garrantzi egokia emateko.

Gorputzak barruko desorekaren baten edo gaixotasun jakin baten berri ematen diguten seinaleak bidaltzen dizkigu sarritan. Horregatik, abisu horiei garrantzirik ez kentzea komeni da, gerora gaitz larriagoak izan daitezkeenak saihesteko balio dutelako.

Beste zerbait ezkuta dezaketen molestia itxuraz garrantzi gabeak

● **Hainbat astetako eztula.** Bronkitis biriko baten berri eman diezaguke, edo sudurreko polipoen susmoa sorrarazi. Dena den, medikuaren auskultazioak diagnostikoa argituko du, eta baita beste arrazoi posible batzuk baztertu ere; asma, esate baterako. Eztulaz gainera karkaxarekin odola botatzen bada, gaitz larriagoren bat ote dagoen aztertu beharko da –biriketako minbizia, azken muturrean–.



● **Bertigo iraunkorra.** Normalean gertatzen den bezala pare bat egunean desagertu ordez, denbora igaro ahala bertigoak gero eta gogorragoak direnean eta gero eta eragozpen handiagoa eragiten dutenean, litekeena da horien azpian belarriko trastornoren bat egotea, edo oraindik diagnostikatu gabe dagoen diabetesa, hipertentsioa edo arteriosklerosia.

● **Gehiegizko logura.** Horren azpian loaren trastorno garrantzitsuren bat egon daiteke –gaueko apneak, esaterako– eta komeni da mediku batek ikustea. Depresioa eta herstura edo antsietatea bezalako arazo psikologikoak ere izan daitezke arrazoia. Hormona tiroideoaren jaitsiera, eta odolean kaltzio edo sodio gehiegi egotea ere aipatu behar dira gehiegizko logalearen erantzuleen artean. Diagnostiko egokia eta tratamendua beharrezkoak dira kasu guztietan.

● **Odol-galerak menopausiaren ostean.** Kasu gehienetan emakumeak garai horretan izan ohi duen estrogeno-mailaren beherakadak sortuak izan arren, zenbait egunetan zikinduz gero, zoaz ginekologoarengana, litekeena baita endometriosisa edo baginako irritazio edo inflamazioren bat izatea egoeraren jatorria. Medikuek agindutako tratamendu hormonalak ere sor ditzake ezohiko odol-galera horiek, baina hori espezialistak baloratuko du.

Min lokalizatuak

● **Buruko minak.** Bat-batean agertzen badira, ohikoa ez den intentsitatearekin –minak “erre” egiten duela esaten dute gaixoei–, garuneko infartu baten etorreraren abisu moduko seinaleztat har daitezke. Minarekin batera ikusmen eta koordinazio-arazoak badituzu, zoaz medikuarengana.

● **Sabeleko mina.** Mina sabelaren goiko aldean kokatua badago, edo behe-eskuinaldean, eta minaz gain sukarra agertzen bada, pankreako arazoren bat izan daiteke.

● **Gerrialdeko mina.** Disko-herriaren bat izan daiteke, batzuetan indar muskularraren galera ekarri ohi duena. Mina bizkarralde osora zabaltzen bada, behazuneko kalkuluak edo harriak izan daitezke. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Maspilaren zura

ARBUTUS UNEDO, gurbitz handirik ez duzu berehalakoan aurkituko, eta gurbitziren bat ezagutzen duen bat baino errazago topatuko duzu hego haizea noiz sortu zen dakiena. Egurra sutarako, zura tornurako, hostajea bazkatarako, fruitua likoretarako... Ia desagerpenerainoko bultzadizoa emana diogu.

ANDREW DUNN-CC BY SA



Maspila, *Sorbus terminalis*.

Gurbitzarena bezalako adibide mordoa du gure kulturak. Oinarriko premiak betetzetik abiatu genuen basoaren ustiakuntza. Gero, ordea, berdindu ezinezko diru-gose galantak ase asmoz ikaragarriko triskantzak bai antolatul! Landare asko eraman dugu desagerpeneraren amildegiaren ertzero. Gure etxean maspila eta hiztegi-tan basagurbea deitzen dena kasu, *Sorbus torminalis*. Gutxi ezagutzen du, ez da harritzekoa! Gurbitzaren aldean urria da. Izan ere, zenbat lanabes egin ote dira bere zurarekin?

Garai batean kaobaren (*Khaya* sp. eta *Swietenia* sp.) pareko zurtzat jotzen zen, onetan onenetakoa. Baita gaur egun ere; aurkitzen nahikoa lan, eta garesti! Zur trinkoa da, 660-990 kilo metro kuboko, lantzeko gozoa, gogorra, pitzadurarik eta tipularik gabea, iruditzen zaila, galera gutxi duena, gorritzat dotorea. Makina bat gauza egin izan da maspilezko: eskulturak eta eskopeta kaxa politak, neurtze tresna iraunko-

rrak... Musikari ere aparteko zera bereziren bat erantsiko dio, tresna askoren zenbait atalek zur hori behar baitzuten, piano eta antzekoen giltzak edo teklak, adibidez. Ezagunak dira haize instrumentuenak, entzutetsuenak elizetako organoen tutuak eta bestelako zatiak. Marruskadura eraman behar duten piezak egiteko ere aukerakoa: makinetak atalak, engranjeetako hortzak... Era berean, mahai tresna, burruntzali eta antzekoak egiteko ezpelaren (*Buxus sempervirens*) parekoa. Tankera guztietako lanabesen kirtanak egiteko aparta. Maspil zurezko oholez osatutako barrikak estimu handia zuen, bai uxualetarako bai ardotarako. Maspilaren aleak, mizpiraren (*Mespilus germanica*) eran ondo usteldutakoan gozatzen dira eta ezker aihena (*Humulus lupulus*) bezala, garagardoa mikazteko, baita belar eta patsen uxualak osatzeko baliatzen zen. Sagardoa hobetzeko ere erabili izan da. Maspilardoa egin izan omen da. Zuretarako maspila bota eta bota egin dugu, baina ardotarako behinik behin eutsi beharko genioke! ■



Irakurleak galdezka

Aupa Jakoba! Lagun artean eztabaida piztu zaigu eta zure laguntza premian gertatu gara. Hara, gaztelaniazko *menta* eta *hierbabuena* gauza bera al dira? Non dago alde? Eta euskaraz nola esango ditugu? Eskerrik asko.

Inazio Usarralde (Lazkao)

Ufff! Osin artean sartu haiz! Zikulu-saltsa ikaragarria dago gai horrekin. Denak mendak dira, asko dago, penintsulan hamabi espezieetik gora... *Hierbabuena* teari eta nahasten zaionari deitzen zaio, baina horretarako ere bat baino gehiago erabiltzen da. Gehienetan *Mentha spicata* espeziea da, baina bere hibrido bat ere (*Mentha spicata* x *Mentha suaveolens*) izan daiteke, beste batzuen artean.

Esaten duzuna esaten duzula beti arrazoi, apustu



ARTHUR/WWW.TRIBE.NET

Menda, *Mentha spicata*.

polita beraz! *Hierbabuena* guztiak mendak dira, baina menda guztiak ez dira *hierbabuena*. Euskaraz izen mordoa dute: batana, txortaloa, menda fina, menda zuria, menda beltza... ■

Great Smog: 1952ko laino hilgarria



ANDREW PETCHER



CRISIS PICTURES



GEOSCIENCE WORLD

Londresko kaleak duela 50 urte. Hiria laino artean ikustea ez da ezohikoa, baina 1952ko abendu hartan laino kutsatuak 4.000 pertsona hil zituen berehalakoan, eta hurrengo hilabeteetan kopurua 12.000ra iritsi zen.

LONDRES, 1952KO ABENDUA. Hilaren lehen egunetan laino trinkoak hiria hartu zuen. Horrek ez zituen herri-tarrak kezkatu, ohikoa baitzen. Baina laino itxiak ezau-garri berezia zuen: hil egiten zuen.

Egun batzuk lehenago fronte hotz batek jo zuen Britainia Handia, eta hiriburuko biztanleak ohi baino ikatz gehiago erretzen hasi ziren etxeko goxotasuna atxikitze-ko. Baina Bigarren Munduko Gerraren ondorioek gogor astindu zituzten herritar txirotuak. Hala, kalitate txarreko ikatz merkea erretzea beste aukerarik ez zuten. Ikatx hark sufre asko zuen eta ke lodi toxikoa botatzen zuen. Gainera, aire masa hotzak kea behera bultzatzen zuen, lurzorutik gertu burbuila modukoa eratuz. Biz-tanleek ikatza erre ahala, lainoa geroz eta ilunagoa, itxiagoa eta kirasdunagoa zen.

Lehen ageriko biktima garraioa izan zen, publikoa nahiz pribatua; sufre, artseniko, kadmio, nikel eta mer-kurio partikulek, besteak beste, ikuseremua asko murriztu zuten eta agintarietako trafikoa –lur gainekoa behintzat– eteteko erabakia hartu behar izan zuten.

Horrek ez zuen hiria geldiarazi, metroak martxan segitu baitzuten. Aire zabaleko kirol ekitaldiak ere bertan behe-ra utzi zituzten hasieran, eta kea eraikinen barrualdean sartu ahala zine aretoak, antzokiak... ixten hasi ziren. Hala ere, izuak ez zituen Londresko biztanleak hartu: lainoa hiriaren ikurra zen ia, eta iritsi bezala joango zen.

Great Smog edo Laino Handiak bost egun iraun zuen, abenduaren 5etik 9ra. Handik egun gutxira osa-sun zerbitzuek bildutako datuak izutzeko modukoak ziren: 4.000 pertsona hilda ziren ordurako, gehienak haur txikiak edo aurrez arnasketa arazoak zituzten helduak, batez ere arnas aparatuko infekzioek –bron-kopneumoniak eta bronkitis akutak– eta arnasbideen buxadurak jota.

Hurrengo hilabeteetan beste 8.000 lagun hil ziren laino beltzaren ondorioz, eta 100.000 gaixo-tu. Laino Handiak kutsadura atmosferikoa-ren eztabaida piztu zuen, eta handik gutxira airearen kutsadura murrizten ahalegintzeko lehen araudiak jarri ziren indarrean. ■



Arrastoak

Munduaren amaiera negozio



MAYAS 2010

HIL HONEN 21EAN ez da mundua amaituko, historialariek garbi adierazi baitute maien profezietan ez dagoela halakorik. Baina amaituko balitz, batzuk poltsikoak ederki beteta hilko liriteke. Babeslekuak eraikitzen dituen Northwest Shelter Systems enpresan enkarguek %70 egin dute gora aurtan. Cancuneko hotelen ira-

baziak %9 igo dira krisialdi betean, eta abendurako %90etik gorako oku-pazioa dute ziurtatua. 21ean “azken afaria” Chichen Itzako ekitaldi bere-zian egin nahi dutenek 360 dolar ordainduko dute. Eta munduaren amaierarako propio sortu den 2012 Apocalypsis Insurance konpainiak ez die bezeroei sosik ordainduko. ■

Erreferendumak akordio sendoa derrigor

Nazioaren gaiak Parlament-eko eserlekuak birbanatu ditu azaroaren 25eko hauteskundeetan. Erreferendumari Bai eta Ez esatearen aldeko alderdien blokeak ia lehen zeuden bezala geratu dira ordea, subiranismoak 375.000 bozka irabazi dituen arren. Artur Mas-ek babes beharko du gobernatzeko eta autodeterminaziorako erreferenduma aurrera ateratzeko; ERC izan daiteke horretarako bidelaguna.

| ÀLEX MILIAN / EL TEMPS |



WWW.TORELLO.COM

Masek "ezohiko gehiengo" lortu ez duen arren, subiranismoak gora egin du Katalunian azken hauteskundeetan.

AUTODETERMINAZIO erreferenduma deitu beharko den legegintzaldirako gehiengo ezohikoa lortzeko Artur Masen saiakerak porrot egin du, erreferenduma babesten duten alderdien blokeak eserleku bat irabazi duen arren: lehen CiU, ERC,

ICV, SI eta Laportak 86 eserleku batzen zituzten, orain CiU, ERC, ICV eta CUPEk 87 eserleku dituzte. CiUko hautagaiak berretsi du erreferenduma legegintzaldi honetan egingo dela, eta zentzu horretan, alderdi politiko horien babes izan-

go du. Baina era berean, Masek zehaztu du egunerokoan ere babes beharko duela. "Ezin dugu herriaren gobernagarritasunaren ardura bakarrak izan" esan zuen Artur Masek emaitzak jakin ondorengo lehen agerraldian. "Gobernua gida-



ENOBSEVER.COM / O. L.R.

Diadako manifestazio historikoak erabat baldintzatu du Kataluniako politika.

tuko dugu, baina laguntza beharko dugu”, erantsi zuen emaitzak nahi bezalakoak ez direla izan onartu ondoren, eta beraz, “jendeak esan digu laguntza gehiagorekin joan behar dugula”.

Horrek, elkarrikteta prozesua irekiko du CiUren eta gainerako alderdien artean. Esquerrak, 21 eserlekurekin bigarren indarra izanik, oposizioa gidatu zezakeen, baina CiUren gobernu kide izateko ere aukera logikoena zirudien, autodeterminazio erreferenduma deitzeko helburuarekin bat egiten baitu: Parlament-eko lehen eta bigarren indar nagusiek osaturiko gobernu, ezohiko gobernu izango litzateke, ezohiko legegintzaldi baterako. Eta Mas hautagaiak erantzunkidetasuna eskatu zuenean, ERCko buru Oriol Junquerasek zera erantzun zuen: “Esquerrak ardura osoa hartuko du; herriak espero duen mailan egongo da”. Baina ERCk garbi adierazi dio CiUri ez dela gobernuan sartuko. CiUren eta ERCren ikuspegi politikoak kontrakoak dira ezker/eskuin ardatzean —bereziki krisi garaioan,

batzuek eta besteek errezeta diferenteak dituztelako ekonomia berrakibatatu eta defizitari eusteko—. Honek gobernagarritasuna zaildu dezake, eta oraingoz, CiUk ez du aterik itxi nahi izan bere adierazpenetan.

Beste bi aukerak —matematikoki hitz eginez— PSC eta PP dira. Lehenak konplikaturik dirudi, PSCk —8 eserleku galdu ditu eta historia-ko emaitzarik txarrenak izan ditu— hurrengo hauteskundeetan botoak berreskuratu nahi baditu, nekez hartuko du estrategia onargarri gisa CiUrekin koalizio gobernu osatzea: Iniciativaren hegaletik botoak galdu baditu, PSCk nahia-ko izango du politika sozialaren

mezuei ekitea, bere burua nahasita ikustea baino murrizketak bai ala bai egin beharko dituen exekutiboan. PPren aukera politikoki logikoa da —CiUk eta PPK hainbat murrizketa sustatu dituzte elkarrekin joan den legegintzaldian—, baina nazioaren ikuspegitik sinesgaitza: edo CiUk erreferendumari uko egiten dio, edo PPK onartzen du federazio nazionalistak erabakitze-ko eskubidea sustatuko duela, bera murrizketa lagun moduan duen bitartean. PPK CiUren kontra egindako kanpaina gogorraren ostean —Masen zintzotasuna zalantzan jartzen zuten zigorkada mediatikoak barne—, berradiskidetzeari oso konplikaturik da.

CiU eta ERC koherenteak izan eta erreferenduma nahiz estatu egiturak prestatzea lehenesten badute, balizko *esquerrovergènciak* —koalizioan izan gabe ere— are gehiago nahasiko du Mas presidentearen egutegia eta aurre egin beharreko lehentasunak, ERCk politika sozialean murrizketak

Parlament-eko lehen eta bigarren indar nagusiek osaturiko gobernu, ezohiko gobernu litzateke, ezohiko legegintzaldi baterako. Baina ERCk garbi adierazi dio CiUri ez dela gobernuan sartuko

arindu nahi izango baititu. Bestalde, ERC uzkur ager liteke CiUrekin gobernuan sartzeko —oraingoz ezezko borobila eman dio aukera horri—, hirukoaren esperientziak orain berreskuratu dituen boto kopuruak galtzea ekarri baitzion. Nahiz eta bere presidente eta hautagai berriak, Oriol Junquerasek, kontsentsu handiak nahi dituela esan izan duen eta maiz harrotzen den bere udala (Palafrugell) CiUrekin eta ICVrekin batean gobernatzeaz. Dena den, ia ezinezkoa da aukera hori nazio mailara eramatea —horixe iradoki izan duen arren, hitzak ondo zainduz—.

Baietzak boto gehiago irabazi du

Bi gertakari azaltzen dute CiUren eserlekuen galera. Alde batetik, azken berrogei urteko krisi ekonomiko gordinenean gobernatzeak, murrizketa errezetak aplikatuz eta ongizate estatua ahulduz, bistan da higadura sortzen duela. Artur Mas berak gogorarazi du krisiaren tesuinguruan hauteskundeak deitzen dituzten gobernu alderdi gehienak, hauteskundeak galtzen dituztela, baina Katalunian ez da halakorik gertatu: “Bi urtetan baldintza gogorretan gobernatzen egon ondoren, hauteskundeak deitu dituzten Europako gobernu ugari aldatu egin dituzte. Murrizketen eragina handia izan den arren, guk babes garrantzitsua lortu dugu hauteskundeetan”. Bestetik, Mas hautagaiak onartu duen gisan, CiUk hauteskunde hauek programari “argiena” aurkeztu du nazioaren etorkizunari dagokionez. Bere hautesleen zati bat Esquerratik

joandakoa izan zitekeen eta oraingoan jatorrira itzuli da, eta beste zati batek —Espainiatik banantzeaz ez oso konbentziturik— anbizio gutxiagoko aukeren bila joan izan liteke, naziotasunaren ikuspegiz hitz eginda. Parte-hartzaileen kopuruaren gorakadak ere CiUren kontra jokatu duela dirudi, portzentajeen aldetik, boto galerak diputatu kopuruan odoluste handiagoa egin baitu; baina argi dago, zenbaki absolutuetan, erreferendumari Bai dioen blokeak Ez esaten duen blokeak baino askoz gehiago irabazi duela.

Garai berria ireki nahi badugu, kaleko ahots hori hauteskontzietan irudikatua dagoela frogatu behar dugu. Herri baten ikuspegitik horrek garrantzia dauka

Abstentzio maila estatu hauteskundeetan tankerakoa izan den arren, boto espainolista ez da independentista baino gehiago berrakibatutako: CiUk 90.000 boto galdu ditu 2010etik, baina ERCk 267.000 gehiago batu ditu, CUPEk 126.000 boto berri jaso ditu eta Iniciatibak —autodeterminazio erreferendumaren aldekoa— 128.000 irabazi ditu. Bloke honi kentzen badizkiogu Solidaritat per la Independència galdu dituen 56.000 botoak, agerikoa da Bai esaten duten alderdiek 375.000 boto gehiago irabazi dituztela

orotara. Aldiz, Ez dioten alderdiek 198.000 gehiago baino ez dituzte irabazi: PPK 2010etik 82.000 botoak eta Ciutadans-en 168.000 botoak; horiei kendu behar zaizkie PSCk galdu dituen 52.000ak. Espainiako PPK, Maria Dolores de Cospedalen ahotik, Masen strategiak porrot egin duela esan du, ez duelako eskatzen zuen ezohiko gehiengo lortu. Zentzu horretan, Convergència liderak proposatutako prozesua ere —autodeterminazio erreferendum bat aurreikusten zuten hauteskundeak deitzea—

porrot gisa deskribatu du Cospedalek. Kontrara, CiUko hautagaiak erantzun du ez dela damutzen bozka hauek deitzez, irailaren 11n *Catalunya, nou estat d'Europa* lemapean izandako manifestazioaren ondoren. “Herriari hitza ematea ere —esan du Masek— positiboa da. Norbaitek pentsa dezake:

galdu duenez, ez zen beharrezkoa. Ez naiz damutzen. Diskurtso guztietan esan dut boto bihurtu behar genuela kaleko ahotsa”.

Garai berria ireki behar badugu, ahots hori hauteskontzietan irudikatua dagoela frogatu behar dugu. Herri baten ikuspegitik horrek garrantzia dauka. Masek uste du diputatuak galdurik ere, emaitza onak izan dituela: “Bigarren indarra bikoiztu baino gehiago egiten dugu”, eta ez dagoela “gobernu alternatiborik”, laguntza beharko duten arren. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Nor nahi zoazela. Nor nahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Banku eredu kooperatiboa indartzen

Martxotik harremanetan eta negoziatzian aritu ondoren, Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak Euskal Kreditu Kooperatiba eratu dute. Urtarrilaren 1ean hasiko du ibilbidea, eta datorren urtean zehar egonkortuz joango da. Kooperatiba berria Euskal Herriko bigarren finantza-erakundea eta Espainiako Estatuko bigarren kreditu-kooperatiba izango da.

| DANIEL UDALAITZ |

ZORTZI HILABETE igaro dira Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak hizketaldiak hasi zituztenetik kreditu-kooperatiba bateratua osatzeko. 2012ko martxoaren 20an, bi finantza-erakundeek ofizialki jakinarazi zuten negoziazio formalak martxan zituztela. Orduz geroztik, bi erakundeek ordezkariak hainbat arlo jorratu dituzte, euskal kreditu-kooperatiba berri eta aitzindari hau abiarazteko akordioak lortzeko helburuz. Joaneko azaroaren 1ean, erakunde juridiko bakarra osatzen zutela iragarri zuten. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, bateratze operatiboari hasiera emango diote, baita burutu ere.

Epe honetan, euskarri ugaritako publizitatea ikusi izan dugu, eta banku-eredu berria, bezeroekin lan egiteko modu berria, susperraldi ekonomikoa sustatzeko agente aktibo bihurtzeko nahia... iragartzen zuten. Orain, hori guztia praktikan jartzeko unea iritsi da. Eta proiektuaren arduradunak buru-belarri ari dira. Merkatu-marka berria Euskadiko Kutxaren eta Ipar Kutxaren marken konbinazioa izango da, eta bien balioa eta posizionamendua kapitalizatuko ditu.

Hala ere, MCC taldearen, haren barruko Fagor eta Eroski enpresen eta Euskadiko Kutxaren zoritxarreako, kaltegarriak izan litezkeen gertaerak azaleratu dira etapa berri honetan. Eroskiren eta Fagorren



EUSKADIKO KUTXA

Euskadiko Kutxaren batzar orokorrean Ipar Kutxarekin bat egitea onartu zuten.

finantza-ekarpenen eta hainbat finantza-erakundetako lehentasun-akzioen ondorioz, bezero askok kalteak jasan dituzte, eta aurreztutako dirua itzultzea eskatzen dute, 2004an ekarpenak egin zituztenean aurreikusten ez zen legedi batek euren aurrezkiak hipotekatu baititu. MCC Taldearen irudia eta sinisgarritasuna ahul lezake horrek, Arrasateko taldeak ez badu gaia modu gardenean argitzen.

Euskal Herriko bigarren finantza erakundea

Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxa kreditu-kooperatiba bakarrean

elkartzerakoan, sortutako erakunde berria Euskal Herriko bigarren finantza-erakundea eta Espainiako Estatuko bigarren kreditu-kooperatiba bihurtuko da, eta merkatu-posizioa indartuko du, batik bat Bizkaian eta Araban. Horrela, kooperatiba berriak 25 mila milioi eurotik gorako aktiboak kudeatuko ditu guztira. Gainera, Hego Euskal Herrian 860.000 bezero baino gehiago dauzka (750.000 EAEn eta 110.000 Nafarroan), eta horri Euskadiko Kutxak beste erkidegoetan dituen bezeroak gehitzen badizkio, erakunde berriak 1.300.000 bezero baino gehiago izango ditu.

	Euskadiko Kutxa	Ipar Kutxa
Aktiboak orotara	21.535 milioi euro	3.967 milioi euro
Bulegoak	364	87
Bezeroak	1.200.000	175.000
Langileak	2.100	397
Kapital nagusiaren portzentajea	%12,12	%14,4
Berezko baliabideak	1.406 milioi euro	274 milioi euro
Kapital soberakina, exijitutakoaren gainetik	511 milioi euro (%57,05)	140 milioi euro (%103,71)
Berankortasuna	%4,71	%4,49

Erakunde biek batera, 451 bulego dituzte (Euskadiko Kutxak 364 eta Ipar Kutxak 87), eta 2.497 langile guztira (Euskadiko Kutxak 2.100 eta Ipar Kutxak 397). Kreditu-kooperatiba bakarra osatu ostean, zenbait bulego eta lanpostu murriztuko dituzte; baina ez dirudi arlo horretan aldaketa handirik egongo denik.

Batasunak, indar. Integrazioaren negozio-plana zuhurtziaz gauzatu da, eta aurreikuspenak egitean, bankuentzat negatiboa den testuinguru bat hartu dute oinarri. Horrenbestez, kooperatiba berriak kaudimen-baldintza guztiak beteko ditu. Izan ere, ekitaldi honetan zuzkidura guztiak estali eta enpresen eta partikularren kartera handitzeaz gain, estaldura orokorrerako funtsa nabarmena lortu du.

Arduradunen iritziz, aliantza honek bere posizionamendu estrategikoa hobetuko du tokiko erakunde gisa, eta ekonomia soziala oinarri duen finantza-erakundea sustatuko du, helburua izanik erakundeak barne hartzen dituen merkatuak finantza-zerbitzuz eta aseguramen-

duz hornitzea. Gaur egungo eredia finantza-sistema banku bihurtzearen ondorio da, eta erakunde berriak eredu horren ordezkotik aukera bat ere eskaini nahi du. Arduradunen hitzetan, proposatutako eredu berriak bezeroenganako gertutasuna mantentzearen alde egiten du, eta haren

Gaur egungo eredia finantza-sistema banku bihurtzearen ondorio da, eta erakunde berriak eredu horren ordezkotik aukera eskaini nahi du, bezeroarenganako gertutasuna mantentzearen alde

xedea da finantza-egoera berrian rol garrantzitsua betetzea, garapen ekonomikoa eta soziala ikuspuntu berri batetik sustatzeko asmoz. Halaber, kooperatiba-proiektu berriak industriarekin eta nekazaritza-elikagaien sektorearekin lanean jarraituko du, oinarrian dituen bi erakunde eza-gutzez baliatuta.

Arrasaten izango du egoitza soziala

Arrasaten egongo da euskal kreditu-kooperatiba berriaren egoitza soziala. Orain arte, Ipar Kutxak Bilboko Areatza plazan zuen egoitza, eta hemendik aurrera, bertan izango dira Txikizkako Bankuaren Merkataritza-sarearen eta haren Negozio Batzordearen azpi-egoitza operatiboak, baita Lurralde Zuzendaritza eta horri dagozkion euskarri-egiturak ere. Era berean, Bizkaiko hiriburuan jarraituko dute Lagun Aro Aseguruen, Kartera Sozietatearen eta Kudeatzaileen egoitza sozialak.

Artezkari-tza-kontseiluak 15 kide izango ditu oraingoz: 12 Euskadiko Kutxarenak eta 3 Ipar Kutxarenak. Fusioatutako bi erakunde batzarrek Txomin Garcia izendatu dute erakunde berriko lehendakari, orain arte Euskadiko Kutxaren zuzendari izandakoa, hain zuzen ere. ■



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Sexologiak badu euskarazko hiztegia

Sexologian diharduten profesional euskaldunek lan-baliabide berria dute eskura, Euskal Herriko Unibertsitateak Sexologiako Hiztegia osatu baitu, Nerea Sancho sexologo eta irakaslearen zuzendaritzapean.

| IURE EIZAGIRRE |

HIZTEGIAREN EGITASMOA ez da ezerezetik sortua, izan ere, Nerea Sanchok eta Itziar Alonso-Arbiolak –EHUko Psikologia Fakultateko Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendua Saileko irakasleak biak– sexologo euskaldunen talde baten eskutik hartu zuten proiektuaren ideia. Egitas-moko zuzendaria izan da Sancho eta aholkulari teknikoa Alonso-Arbiol.

Lanean hasterako baziren aurrekariak sexologiako argitalpenetan, besteak beste, Ramon Etxezarretak 1980ko hamarkadan kaleratutako *Hiztegi Erotikoa*. Arlo horretan oso hiztegi oparoa dela dio Sanchok: “Esparruko terminoak oso ongi jaso zituen Etxezarretak”. Psikologian ere ba omen zen glosario bat egitasmo hau garatzen hasi zirenerako. Biek ala biek sexologiaren zati txiki bana hartzen ei dute eta *Sexologiako Hiztegiak*, berriz, eremu zabalagoa lantzen du, euskaraz eta ikuspegi sexologikotik. Horiek dira lan honen ezaugarriak berezkoenak.

Sexologian jakitun baina euskararen zuzentasuna menderatu gabe, EHUko Euskara Zerbitzura jo zuten Sanchok eta Alonso-Arbiolak laguntza eske. Ordutik Juan Kruz Igerabide izan dute bidelagun proiektuan, bera izan baita hizkuntza-arduraduna.

Hizkuntzaren egokitasun falta egunerokotasunean islatzen da eta, besteak beste, hedabideen kasua mahaigaineratu du Sanchok:



Sarean dago oraingoz 400dik gora orrialdeko hiztegia. Hainbat profesionalen zuzenketak egin eta gero argitaratuko dute paperean.

“Askotan maileguak gaztelaniatik euskarara itzultzen dira zuzenean eta gaztelaniazkoa ingelesezkoaren itzulpen txar bat denez, euskarazko emaitza eskasa da”. Eta gurean ‘G puntua’ bezala erabiltzen den terminoa jarri du adibidetzat: “Ingelesezko ‘G-spot’ ‘punto G’ bezala itzuli dute gaztelaniara (‘point G’ gisa frantsesera) eta euskaraz ‘G puntua’ esaten dugu. Agian, ordea, gehiago interesatzen zaigu ingelesezko kontzeptua ‘G puntua’ deituriko hori ez baita puntu bat, gune bat baizik. Beharbada, nahiago genuke ‘G gunea’ esan”.

Ikuspegi sexologikoaren garrantzia

Gaia ikuspegi sexologikotik lantzea izan dute beste erronketako bat Sanchok eta Alonso-Arbiolak. Zer da, ordea, ikuspegi sexologikoa? Sexologia diziplina arteko diziplina dela eta hainbat alorretatik hartzen badu ere ikuspuntu propioa daukala azaldu du *Sexologiako Hiztegiaren* zuzendaria. Eta adibide bat jarri du azalpena hobeto ulertzeko: “Demagun ‘koitoa’ hitza definitu behar dugula. Medikuntza ikuspegitik haurdunaldia sortzera darman eta infekzioak eragin ditzakeen jokabide erotikoa dela esango genuke, ikuspegi biologikotik espeziearen biziraupenerako ugaztunen jokabide bat, begirada erlijiosokatolikotik bekatuaren jokabidea baldin eta ezkontzaren barruan egin ez bada eta ikuspuntu progressista politikoki zuzenetik orgasmoan bukatu behar duen eta plazer handiena eragin behar duen gizon-emakumeen arteko jokabide erotikoa garrantzitsuenak”. Zuzenean ezer esan gabe, horrelako definizioekin gauza ugari adierazten direla dio Sanchok, besteak beste, harremanak nolakoak izan behar diren edo zein jokabide diren garrantzitsuenak.

Ikuspegi sexologikoak, berriz, gizonen eta emakumeen ezaugarri ezberdinak hartzen ditu aintzat, eta hain zuzen ere ezaugarri horien arabera definitu dituzte terminoak *Sexologiako Hiztegian*. Horrela, honakoa da ‘koitoa’ren adiera: “Zakila

sexukidearen baginan edo uzkie barruratzea: zakila izan daiteke aktiboa, edo bagina nahiz uzkia, sartuz, igurtziz, laztanduz edo kolpatuz. Bestelako zehaztasunik ematen ez denean, bagina-sarketa dela jotzen da”. Sanchoren esanetan, gauzak ahalik eta modurik sintetikoenean eta karga moralik gabeko egiten saiatu dira, definizioetan zer den egokia eta zer ez adierazi gabe edo hala dago-kionean aukerez, eta ez arriskuez, hitz eginda.

Izan ere, egitasmo hau gauzatzeko aztertutako lau hizkuntzetako (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa) hiztegiak aurkakoa topatu dute, eta hasierako asmoa definizio onak bilatzean haiek itzultzea bazen ere, oso kasu gutxitan izan da hau posible, definizio gehienak desagokiak baitira. Ondorioz, beraiek moldatu edo asmatu behar izan dituzte hitzen adierak, beti ere aniztasuna kontuan izanda. Sanchok azaldu duenez, “saiautuz ez sexistak, ez heterosexistak, ez orgasmozentristak, ez falozentristak, ez koitozentristak... izaten”.

1.700 hitzetik gora profesionalen lagungarri

Zalantzak izanda *Sexologiako Hiztegia* edonori lagungarri gerta badakio ere, sexologia arloko profesionalentzat, hau da, medikuentzat, erizainen-tzat, farmazia-langileentzat,



Nerea Sanchok zuzendu du hiztegia.

ginekologoentzat, psikologoentzat... izango da bereziki erabilgarri lan hau. Baina, lehenago esan bezala, baita prentsako eta ikus-entzuzko komunikazioko langileentzat, hezitzaileentzat zein kulturako eta arteko profesionalentzat.

Ugalketarekin, osasunarekin, sexu eskubide eta nazioarteko mundu egunekin, emozioekin, anatomiarekin, eta erotismo eta jarrera sexualarekin lotutako hitzak hautatu dituzte

Lanak 1.700 terminotik gora ditu, bakoitza bere definizioarekin, eta gaztelaniazko, frantseseko eta ingelesezko itzulpenarekin. 6.000 termino inguru zituzten identifikatuta Sanchok eta Alonso-Arbirolek hiztegiak sartzeko, horietako asko filiak (zoofilia, gerontofilia, pedofilia) eta parafiliak. Baina asmoa ez da izan horien bilduma egitea, beraz, sexologiaren barruko hainbat esparrutako hitzak biltzen saiatu dira modu proportzionatuan. Ugalketarekin, osasun eta osasun arretarekin, sexu eskubide eta nazioarteko mundu egunekin, anatomiarekin, emozioekin, eta erotismo eta jarrera sexualarekin lotutako hitzak hautatu dituzte.

Oraingoz sarean bakarrik kontsulta daiteke hiztegia, EHUKo Euskara eta Eleaniztasun Errektorereordetzaren webgunean. Hainbat profesionalak egindako zuzenketen ondoren kaleratuko dute paperezko bertsioa. Profesionalak ez ezik, militantzian ari direnek ere izan dezaketela zeresanik uste du Sanchok: “Gerta liteke feminismoan dabilen norbait ez egotea ados guk mugimenduaz egindako definizioarekin, eta zuzentzea. Hori jaso nahi dugu, eta proposamena zentzuzkoa eta arrazoitua bada, definizioa aldatuko genuke”. ■



BISITA GIDATUAK

ARABA - ALAVA

Zuiako Koadrila | Cuadrilla de Zuia

- > Urtegia: orain dela 50 urte... Pantano: Hace 50 años...
- > Gazteluak eta jauregiak Castillos y palacios
- > Etnografia Zuian Etnografía en Zuia
- > Mitologia Zuian Mitología en Zuia
- > Zigoitiko Erromanikoa Románico de Zigoitia
- > Zuia eta Urkabustaizko erromanikoa + Artisaugaragardotegia Románico en Zuia y Urkabustaiz + Cervecería Artesanal
- > Hirigune historikoak + Gaztandegia Cascos históricos + Quesería



Urte osoan | Todo el año

Gubioenez: 4 lagun | Mínimo: 4 personas

Precios: 2 - 5 €

945 243 828

645 844 087

Neurrira antolatutako bisitak
Visitas a la "carta"

EUSKADI



- > Nerbioi errekan gora Subiendo por el Nervión
- > Gorbeia magalean: En las faldas de Gorbea
- > Galdakao eta inguruak Galdakao y alrededores
- > Mugan En la frontera



VISITAS GUIADAS

BIZKAIA

Gorbeialdea | Arratia-Nerbioi



www.gorbeiaeuskadi.com

ERAKUSKETA
SAN TELMO MUSEOA
2012.11.16 / 2013.02.17

Estudio Lanzagorta

badu, bada

EUSKARA MUNDU ELEANITZEAN

STM

San Telmo Museoa

www.badubada.com



ANTOLATZAILEAK

MUSEGAREN ERAKUNDE BARRISLEAK

PARTIDAEAK

LAGUNTZAILEAK



donostia.kultura.com



kutxa gizarte ekintza



EL DIARIO VASCO



Azpeitiar gazteek euskaraz hitz egiten dute... baina noka gero eta gutxiago darabilte

BATXILERGO IIKO 103 IKASLERI egin diote hizkuntzei buruz inkesta. Ondorio nagusia ondokoa da: Gipuzkoako Urola bailarako herri euskaldun honetan euskara osasuntsu dago gazteen artean, baina erregistroaren esparruan galera handia izan du hitanoak, bereziki nokak. Inkestatutako azpeitiarrek familian, ikastetxean eta lagunartean, gehien euskara erabiltzen dute. Dena dela, sexuaren arabera bereizketa

nagusitu da eta nesken artean gero eta gehiago egiten dute zuka. Mutilen artean hika mantentzen da. Hitanoa lehenengo familian galtzen da, eta gero ikastetxean.

Gehien irakurtzen duten egunkaria *El Diario Vasco* da; euskaraz berriz *Berria* eta *Hitz* dituzte gogokoak. Aldizkariari dagokienez, bertako *Uztarrria* da nagusi eta ondotik prentsa-arrosari lotutako agerkariak datoz. Gaztelaniaz gehien ikusten

duten saioa *Los Simpson* da eta euskaraz *Goenkale*.

Hizkuntza jarrerari dagokienez, lehen hitza euskaraz egiten dute herrian, baina Azpeititik aterata portzentajeak behera egiten du. Gaztelaniaz zuzentzen zaienari nekez eskatzen diote euskaraz egi-teko.

%88k gidabaimena euskaraz ateratu du edo ateratzeko asmoa dauka.

Bahea

Julia Marin Arteagak 31 eskutik blogean esanak:

“Ezagutzen dut euskaltegi irakasle mordoxka bat, herri txikietan sortutako euskaldun peto-petoak, beti euskara batu aseptiko uniforme bera ahoan dutela ibiltzen direnak Gasteiz aldean, berdin dio lagun-giroan dauden, edo irakasle batzar batean, edo eskola ematen ikasleei, edo txango batean”.

Iñaki Arrutik gipuzkoeuskara.net blogean esanak:

“Ni lehendakaria banintz, osatzear nukeen gobernu berriko sailburu izendatzeko, besteak beste, euskaraz C1, gaztelaniaz C1 eta ingelesez B2 izatea eskatuko nieke. Ni lehendakaria banintz, politika-hizkuntza jarriko nuke hizkuntza-politikaren erdigunean. Nik neuk (eta nire sailburuek...) eredia emango nuke (gobernu-kontseilueta edota legebiltzarrean adibidez) hizkuntza-sailetik egin beharreko lanak zeintzuk diren erabaki aurretik. Nik, lehendakaria banintz, erakartzeko izango nukeen indar horretaz baliatuz, dotore, errespetuz, euskara behar erakargarri bihurtzen ahaleginduko nintzateke”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Etxebizitza eta langabezi arazoak konpondu behar dira

BARAKALDOTIK DONEZTEBERA, Bizkaitik Nafarroara, Ezkerraldetik Iparraldera, etxebizitzaren eta langabeziaren arazoa bera da. Joan den astean Manuel Reguerak bere buruaz beste egin zuen Donezteben, jabeari alokairua ez ordaintzeagatik desalojatua izateko zorian zen egunean. 4.200 euro zor zituen eta langabezian zegoen. Lehenago Amaia Egaña izan zen bere buruaz beste egitea erabaki zuena, Barakaldoko etxebizitzatik kanporatzear zirenean. Haien berri ez dakigun arren, beste batzuk ere suizidatu dira langabe eta etorkizun barik aurkitu direnean. Hau idazten duena beste kasu baten lekuko izan zen joan den astean Bizkaian.

Errepikatzen den errealitate gordin horren sako-neko arazoak bi dira, eta errora jotzen ez badugu –kapitalismoak sorturiko krisia– bere horretan segiko du. Kontua da etxebizitza eta lan eskubideak ez direla errespetatzen, konstituzio orok exijitzen duen arren. Kapitalismoak bere erakundeak erreskatatzen

ditu –bankuak eta aurrezki kutxak–, eta aldiz, langabeziara, miseriara eta etxerik ez izatera derrigortzen ditu milaka pertsona. Badago dirua bankuak eta kutxak salbatzeko, baina ez inbertitzeko eta lana sortzeko. Euskal Herrian 255.000 etxe huts daude, baina milaka lagunak ezin dute bizkar gainean duten hipotekarekin bizi, langabezian edo soldata prekarioekin daudelako.

Politika ekonomikoetan aldaketa erabatekoak beharrezkoak dira, enplegua sortu eta etxebizitza izatea erraztu dezaten. Etxebizitzaren Institutu Publikoa behar da, alokairu soziala bultzatzen zentzuzko prezioetan. Horretarako, subiranotasun politiko, ekonomiko, laboral, judizial eta sozialean oinarrituriko eredu sozioekonomikoaren alde borrokatu behar da. Hor aurki ditzakegu langabezia eta etxebizitza arazoak konpontzeko soluzioak.

Juan Mari Arregi



Caldicott: “Gizakiaren historiako istripurik larriena, Fukushima”

Helen Caldicott mediku australiarra, militante bakezale eta ekologista ezaguna, Tokioko legebiltzarrean izan da parlamentariei eskatzeko Fukushima inguruko eremu kutsatuetatik haurdun dauden emazteak eta haurrak atera ditzaten. Bideoz ikus daiteke politikari japoniarrei eta hedabideoi egin errieta, munduko besteontzat balio duena.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HOGEI PARLAMENTARI BESTERIK EZ zitzaizkion azaldu azaroaren 19an entzule, mundu mailan ezaguna izana arren, liburuengatik, sariengatik, aitortzen zaion lidergoagatik. Helen Caldicott labor eta zorrotz mintzatu zitzairen Tokioko parlamentuan. Hona bere hitzak.

“(Txaloak). Mila esker. Medikuek eta pediatria gisa nator, haurretan berezitua, hitz egitera Fukushima-
ren, gizakiaren historian gertatu den istripu larrienaren, ondorio medikuek. Oso larria izan da, hiru erreaktore fusionatu dira, sekula gertatu gabea. Erradioaktibitate kopuru izugarria utzi du libre. Zorionez lehenbiziko egunetan haizeak mendealdetik jo zuen ekialderantz, Itsaso Bare aldera. Baina gero aldatu eta ipar-ekialdetik hasi da, Japoniaren barruko alderantz, irradiazioak hegoaldera eramanez.

Dakizuenek Japoniako Gobernuak erradioaktibitatea neurtzen zuen SPEEDI izeneko sistemaren bidez, eta bazekiten irradiazioak nora zihoazen. Baina ez zieten herri-tarrei informazioa eman, panikoa zabalduko zen beldurrez. Horregatik jendeek ihes egin zuten irradiazio-gehien zeuden lekuetara.

Txernobyngo istripua oso hurbi-
letik jarraitu nuen. Errusiako agin-
tariak askoz proaktiboagoak izan
ziren herritarrak ebakuatzerakoan

Japoniakoak bere herritarrekiko izan direna baino. Badirudi Japonia-
ko agintariek eta TEPCOk ez dute-
la ulertzen haurrak 10-12 bider sen-
tiberagoak direla erradioaktibitate-
arekiko helduak baino. Neskatoek
irradiazioengatik kantzerra garatze-
ko aukerak mutikoenak halako bi
dira. Eta fetoei milaka bider arrisku
gehiago dute.

Bi milioi jende bizi dira Fukushi-
mako prefekturan, horietatik
250.000 Fukushima Cityn, zeina
erradiazioek aski kutsatua baitago.
Erabat harrituta nago ikusirik Japo-
niako Gobernuak nola baimentzen
duen haurrak bizitzea erradiazio
handiko guneetan. Errusiako agin-
tariek haurrak atera zituzten kutsa-
dura maila bera zeukaten lekuetatik.

Ohartzen naiz Japoniako Gober-
nuaren eragin handia dutela,
areago, hura kontrolatzen dutela
TEPCOk eta industria nuklearrak.
Ohartzen naiz ere politikariak ezja-
kinak direla zientzia eta medikuntza
gaietan, ez dutela arazoa sakonki
ezagutzen. Baimentzea Fukushima-
ko probintzian gera daitezen bai
umeak, bai haurdun diren edo hau-
rrak izateko adinean dauden ema-
kumeak, medikuntzaren ikuspegitik
krimen bat da.

Haur horietako askok kantzerra
garatuko dute beren bizian. Denbo-
ra luzea behar da inkubatzeko kan-

Yuko Human Rights argazki handian
neskato bati ultrasoinuz aztertzen ari zaizkio
tiroideak. Foto txikiokoa da Helen Caldicott.
1938an Australian sortua, medikuntza ikasi
eta pediatrian berezitu zen. AEBetan ari
zelarik irakasle, Three Mile Islandeko istripu
nuklearraren ostean lanbidea utziz geroztik
arma nuklearren kontrako aktibismoari
emana dago. 1982an ezagutu zuen publiko
zabalak *If you love this planet* (Planeta hau
maite baduzu) dokumentalaren protagonista
izaki. Nuklearrez eta arma atomikoez zortzi
liburu plazaratu ditu, *Honoris Causa*
doktoregoa eman diote zortzi unibertsitatek;
sari asko jasoa da, Nobel saritarako Linus
Paulinek proposatua ere bai. Internetez
ikusgai dago martxoan Kaliforniako Santa
Barbaran eman *The Medical Implications of
Fukushima, Nuclear Power and Nuclear
Proliferation* hitzaldi famatua, Tokioko
parlamentuan eman hitzaldi laburra legez.

tzerra, 5 eta 70 urte artean, Hiroshi-
man eta Nagasakin ondo ikasia
dugu.

Zer gertatzen den ikusteko, agin-
tariek Fukushima 80.000 pertsona
ikertu dituzte, gehienak 18 urtez
azpikoak. Ultrasoinuz aztertu diz-
kiete tiroideak, aurkituz haurren
%40k anormaltasunak dauzkatela,
gauza izugarri arraroa pediatrian.
Horietako askok tiroideetako kan-
tzerra garatuko dute, seguru. 12
urteko mutiko bati aurkitu diote eta
16ko neskato bati ere bai arrastoak.

Txernobyngoan 5 urte pasatu
ziren haurretan kantzerrak azaltze-
rako. Hemengoan zantzuek erakus-
ten dute askok garatuko dutela, eta
Txernobyngoek baino erradiazio
handiagoak nozitu dituztela.

Hedabideon erantzukizuna

Mediku izanik iruditzen zait Japo-
niako Gobernuak gehiago babesten
duela TEPCO bere herritarrak
baino. Ezin dira utzi ebakuatu gabe
eremu erradioaktiboetako haurrak,
familia izateko adinean dauden eta
haurdun diren emakumeak. Gober-
nuak bere gain hartu behar ditu
horien leku aldatze eta bizileku
berriak. Baina agintariek men egiten
diote TEPCOri.

Erradioaktibitatea janarietan
pilatzen da, perretxikoetan, arro-
zean, espinaketan, tean, arrainetan...



dugula. Industria nuklearrak bada-ki. Medikuen ikuspegitik, kantze-rrak artatzeko ospitale handi bat abiarazi beharra dago Fukushima berehala.

Informazio publiko oso gutxi dago erreaktoreak kontrolatzeko ahaleginean aritu diren langile giza-gaixoen osasunaz. Erradiazio oso handitan aritu dira. Ez dakigu nola dauden, zenbat erradiazio hartu duten. Informazio honek publikoa izan beharko luke, hedabideei dago-kie bilatzea.

Oraintxe daukauen betebeharrak handiena hau da: ohartarazi behar duzue Japoniako jendea, 7 mailako lurrikara gertatu eta Fukushima 4. erreaktorearen eraikina gainbehera baletor, piszinak dauzkan erre-gaiak lurrera erortzean isuriko luke-tela Txernobylek isuritako erradioaktibitatea halako hamar.

Japoniaren zati handi bat suntsi-tzea ekarriko luke. Ez dakit zenba-teraino jabetzen zareten zenbaterai-noko arriskuan bizi zareten. Politikariek esan dute 4. erreaktorea hondoratuko balitz Tokio ebakuatu beharko litzatekeela. Nora joango lirake 30 milioi jendeok?

Bi urte behar omen dira hor garabi erraldoia eraiki eta erregaia ateratzeko. Edozer gerta liteke bi urtetan. Zergatik ez da eskatzen nazioartearen laguntza?

Azkenik, Fukushima hondakin erradioaktiboak Japonia osoan barreiatzen dira errausteko. Kutsa-dura guztia Japonian zabaltzea krimena da”.

Hori baizik ez du esan Helen Caldicott Tokion ■



Ezin duzue erradioaktibitatea usaindu, ukitu, ikusi. Fukushima jendea elikagai erradioaktiboak ari da jaten, ez dago araurik Japonian. 137 zehazketa daukaten jakeak irentsiz gero denborarekin garatuko duzue kantzerra, burukoa, giharretakoa, obarioetakoa, barrabiletakoa edo bestelakoa.

Fukushimako eskola eta haur-tzaindegietan umeak gai erradioak-tiboak jaten ari dira. Medikuntzatik ikusita, inmorala da! Itsaso Bareko arrainek irradiazio maila handia daramate, izugarritzko erradioakti-bitate pila isuri baita bertan, giza his-torian sekula gertatu dena baino gehiago.

Mintzatu berri naiz 400 pertso-naren aurrean eta jendeak nahi zuen

jakin zer egin daitekeen. Hedabi-deen erantzukizuna da jendea jakinaraztea zer ari den gertatzen hemen Fukushima gertatzen.

Ez da bukatu Fukushima istripua. Deskutsatzeko 40 urte behar-ko direla diote. Baina zientziatik ikusita, sekula ez dute lortuko, ezi-nezkoa baita. 137 zehazketa 300 urte-ko iraupena dauka. Fukushima eta bestetan lurrak, elikadurak, dena egongo da kutsaturik 300 urte edo gehiagoz. Ez dut uste gobernuak badakienik ere noiz arte iraungo duen hondamendiak.

Iragartzen dut erradiazioak hartu dituzten jendeen artean dato-zen 70 urtez, baita berandago ere, leuzemia, kantzer eta sortzetiko malformazioen epidemia ikusiko





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Euskalduna, bizipozetik eta minetik

EUSKALDUN moduan pozik egoteko arrazoï asko dago gaur egun. Nagusiena euskaldun gisa bizi ahal izatea bera, eta horretarako aukerak asko dira: era modernoan, kalitate handiz eta bizipozetik. Euskaldunak gizarte modernoan hitzundu behar dituen tresnarik gehienak ditu eskura: hezkuntza, kultura, hedabideetan, teknologia berrietan... Euskaldunak baikortasunez begira diezaioke etorkizunari, euskararen herriak handitzen jarraitzen duelako eta biziraupenerako tresnak badituelako, borondatezkoak zein legezkoak.

Baina euskaldunak ez du nahikoa horrekin guztiarekin. Euskal Herrian euskaraz bizi dena bizipozetik adina edo gehiago mintzo da minetik, aintzat hartu ez izanak ematen duen minetik, oraindik ere bere herrian sarri, askotan, gehiegitan sentitzen delako baztertua, iraindua, gutxietsia, mespretxatua, erabilia...

Adibidez, Eusko Legebiltzarrerara sartu eta ateko ertzainak euskaraz erantzun ezin dionean, kaleko ertzainak euskaraz hitz egiteagatik probokatzeko ari dela dioenean (zer esanik ez kolore denetako gainerako poliziez), haurrari medikuak esandakoa itzuli behar zaionean, Nafarroako Gobernuak edo Parisekoak muzin egitean Europako hizkuntza gomendioei, diru-laguntzak ukatzean, eskolako bileran, lantokian, Espainiako Konstituzioak ezet dioenean... Euskaldunen minak kontaezinezko egoerak ditu.

Euskal hiztunen komunitatea giltzarri da bere bilakaeran, baina euskal gizarteak baldintzatuko du bere garapena. Eta, gaur gaurkoz, gizarte horrek borondatez eta lege bultzatzen du euskara. Komunitatea, gizarte, borondatea eta legea,

horra hizkuntza garapenaren lauokote ezinbestekoa. Errepaso historikoak argi diosku euskararen herriak aurrera egin duela –EAEko kopuruengatik– eta euskararen lurraldea galtzen ari dela –Iparraldean gero eta ahulagoa da, Nafarroan ezinean dabil eta lurraldea galduz–.

Ondorioa: euskara berriz politizatzea ezinbestekoa da. Politizatzeko, oraindik ere bultzada politikoa handia behar duela esan nahi du, ez besterik.

Zein helbururekin? Legeari begira: Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako Foru Komunitatean EAEk egun duen bultzada politikora iristeko; EAEen, datozen 15 urteetan ezagutzatik erabilerarako jauzi atzeraezinak gauzatzeko (kopuruak

Iritsi da ordua euskal komunitatetik gizarteari mezua argi helarazteko: horrela jai dugu (Nafarroa, Ipar Euskal Herria) edo gehiago behar dugu, bestela larri ibiliko gara (EAE)

aditu eta politikarien artean adostu behar). Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian lege urrats esanguratsuak eman gabe, egoera biziki korapilatsua dator, ez da soziolinguista izan behar hortaz ohartzeko. Nafarroan eta Iparraldean euskaltzaleen indarrak zein diren kontuan hartuta, ezinbestekoa da EAEko botere publikoek euskaldunen komunitate osoa aintzat hartzea eta harekiko harreman eta konpromisoa biderkatzea.

Komeni da gizarte eta euskal hiztunen arteko dialektika irekia etengabe zaintzea. Euskal gizarte –sektore garrantzitsu batzuk kenduta–, oro har, euskararen garape-

naren aldekoa da. Baina erdalduna da nagusiki, eta euskaldunen komunitatetik ohartarazi behar zaio zein den gure osasuna eta egoera, eta zeintzuk diren gure beharrak. Euskarak laguntza behar du, baina gizarte –jarri alderdi, hedabide, lantoki...– erdaldunetik inoiz ez dira urratsak emango gizarte euskalduntzeko, erdarak ez duelako euskararen beharrik. Euskaldunak behar du izan protagonista.


Iritsi da ordua komunitatetik gizarteari mezua argi helarazteko: horrela jai dugu (Nafarroa, Ipar Euskal Herria) edo gehiago behar dugu, bestela larri ibiliko gara (EAE). Hori da, funtsean, iragan abenduaren 1ean Kontseiluak Donostian bildutako jendetzak adierazi zuena. Kasurik onenean ere, egoera osasungarria izango badu, ezinbestekoa da euskarak apurka masa kritikoa eta lurraldea irabaztea. Iritsi da ordua instituzio eta euskararen komunitatearen artean, orain arte ezagutu ez dugun harreman molde batera iristeko. Berrikuntza, eztabaida, begirunea eta elkarlana. Horra abiatzeko lauokote ona.

EAEen, Euskararen Legearen 30. urteurrenean, lege aldaketarekin bideratzen da hori? Ez dago argi. Baina argi dago, egungo esparrutik askoz gehiago ere egin daitekeela. Eusko Legebiltzar berriaren gehiengo oso handiak ematen du sakontzeko aukerarik. Euskaldunen komunitateak gizarteari eta erakundeei zer eskatzen dien argi dago, botere publikoen erantzuna nola bideratuko den ikusi behar orain. Harreman berria eta egoera berria posible dira. Areago, beharrezko dira. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Ekainberri

Ekain berri



6 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

1

Bilboko Euskal Museoa



5 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2

Jorge Oteiza Fundazio Museoa



5 harpidunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museooteiza.org

3

Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa



5 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4

Kirolaz Badakit



2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2346. Argia)

ATXASPI hotela

- Kepa Gorordo Basaras (Durango)

IRUÑEAKO PLANETARIUMA

- Miren Eraña Gallastegi (Aretxabaleta)
- Aintzane Linaza Etxeberria (Gasteiz)
- Fray Juan de Zumarraga Institutoa (Durango)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)
- Manu Urruzola Aranzabe (Alkiza)

GARTXOT liburua

- Ramon Andrinua Lazkano (Bilbo)
- Urumea Euskaltegia (Donostia)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Beñat Irasuegi Ibarra (Errenteria)
- Elixabete Perez Gaztelu (Oñartzun)
- Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)
- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
- Miren Iturrioz Guiu (Andoain)
- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal-Zentro Museoa

- Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)
- Iker Urkia Martinez de Lahidalga (Aretxabaleta)
- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
- Asier Iturria Zugaza-Artaza (Abadiño)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 94 dokumental eskura

Amerikanuak
Anuken egia
Arrhash, pozoina
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Elburua Gernika
Euskararen berreskuratzea: Hedabideak
Euskararen berreskuratzea:
hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Ni basatia naiz
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarrria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Gure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

 www.twitter.com/dokumentalak

 www.facebook.com/dokumentalak





elkarlanean

